

Urtekaria



AVIS[®]

Budget[®]

**ERRESERBA EZAZU ZURE
AUTOA GUREKIN
ARRASATEN**

*Zorionak eta
urte berri on!*

AUTOBERRI, S.L. (MECA)

San Andres Auzoa, 8 • 20500 Arrasate

T. 943 71 24 72 | 678 49 13 73

avis.es





Goiena Klubeko bazkidetza **%30 merkeago**

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Ondorioz, besteak beste, Goiena Klubeko bazkide baldin bazara edo egiten baldin bazara, **zerga onurak** ezarriko zaizkizu Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Goiena Klubeko bazkidetza kuota **%30 merkatuko zaizu errenta aitorpena** egiterakoan.

BAZKIDE EGITEKO, DEI EGIGUZU: 943 25 05 05
EPE-MUGA: 2020KO URTARRILAREN 31.



Hainbat komertziotan deskontuak. | Puntuak aldizkaria astero etxean.
Deskontuak Goienako iragarki sailkatu eta eskeletan. | Zozketak eta promozioak.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

AURKIBIDEA

URTEKARIA DEBAGOIENA 2019

Urtea hilabetez hilabete	
Urtarrila	4
Otsaila	6
Martxoa	8
00 Apirila	10
Maiatza	12
Ekaina	14
Uztaila	16
Abuztua	18
Iraila	20
Urria	22
Azaroa	24
Abendua	26
Protagonistak	28
Aztergai	
Gizartea 2019	30
Ekonomia 2019	33
Kirola 2019	36
Kultura 2019	39
Urteko pozak eta penak	42
Datorrena	
Gizartea 2020	44
Ekonomia 2020	45
Kirola 2020	46
Kultura 2020	47

EDITORIALA

Geroko erronkak eta Debagoiena 2030

Hauteskunde urtea izan da 2019a, besteak beste, Espainiako klase politikoak ados jartzeko erakutsitako gabeziagatik. Baina udalbatzak aukeratzeko urtea ere izan da. Debagoienez ez da aldaketa nabarmenik izan, Bergaran izan ezik; han, EH Bildu gailendu zaio EAJri. Leintz aldeko herri nagusietan egonkortu egin dira EAJren alkateak eta gauza bera gertatu da EH Bilduren alkatetzekin, Oñatin aurpegi berriarekin. Bergarako aldaketak ekarri du, era berean, Mankomunitatean aldaketa: EH Bilduren eskuetan dago orain batzordearen gehiengoa. *Klasiko* baten itzulera ere ekarri dute bozketek, bigarren *itzulian* bada ere: Eugenio Otsoa berriro da Leintz Gatzagako alkate, maiatzean barik –ez zen hautagaitzarik aurkeztu udal hauteskundeetan– azaroaren 17ko bozketen ostean.

Klima aldaketaren gaia agendaren erdian jartzen hasi dira herritarrek eta herri ordezkariak. Ingurumenarekiko kezka ez da gaurkoa gurean, zorionez. Esaterako, hiri hondakinen kudeaketaren gai eztabaidatsuak herritarren kontzientziak eta ohiturak aldatzeko balio izan du. Baina klima larrialdiari aurre egiteko neurri zehatzak hartzeko bidean jarri dira erakundeak; ez behar-ko litzatekeen abiadura, neurriekin eta baliabideekin, halere.

Zentzu honetan, Debagoienez sortu den 2030 ekimena da nabarmentzekoa. Bagarak agur esan du aurten, 10 urte eskualdea eraldatzeko ekimenak bultzatu ostean –horietako batzuk eragin-korrak eta gaur egun indarrean– eta, seguruen, hainbaten itxaropenak bete barik. Haren lekukoa hartu du Debagoiena 2030 ekimenak. Eskualdeko erakunde publiko, enpresa eta herri eragileak, erronka nagusiei nola heldu marrazten, elkarrekin, entzute aktiboaren bidez. Klima aldaketa, lanaren etorkizuna, aukera berdintasuna eta komunitatea eta partaidetza ardatz. Eskualde hau izan da aitzindari hainbat arlotan eta Debagoiena 2030 da aukera bikaina eraldaketa sozialean aitzindari izaten segitzeko.

Arrasateko eredu kooperatiboaren sortzaile izan zen talde hartako azken biak joan dira 2019an: Jesus Ormaetxea eta Alfonso Gorroñogoitia; biak ere, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak omendu eta hilabete gutxira. Azpimarratzekoa, bestalde, Mondragon Taldeak egin duen ahalegina *Humanity at work*-etik *Humanity*

at music-erako. Kulturaren eta sorkuntzaren bidetik, ekimen arrakastatsua gorenera heldu zen irailean Buesa Arenako ekitaldi ikusgarrian. Komunikazioarena, jorratu beharreko etenbako bidea da, inbertsioa eskatzen duena enpresa talde handietan eta horretan badaukate lana Mondragon Taldeko kooperatibek ere.

Ederlan, Monzon, Miguel Altuna, Garagartza...

Aipamen berezia 2019 honetan: batetik, Fagor Ederlanek Bergaran irekitako lantegi berria, punta-puntako automozioiokotailerra abian jarritz; bestetik, Miguel Altuna eskolak, lanbide heziketan aitzindari izaten jarraitzeko, ireki duen eskola berria; baita Fagor Etxetresnen Garagartzako lantoki izandakoak jarduera industrialerako berreskuratzeko hasitako bidea; eta, azkenik, Monzon Laborategia, Euskal Herriaren ekoizpen estrategikoak izan daitezkeen erronkei heltzeko sortua. Esanguratsua izan zen ikustea Olaso Dorreko aurkezpenean abertzaletasunaren familia politiko bietako goreneko ordezkariak.

KLIMA ALDAKETA, ETORKIZUNEN LANA ETA AUKERA BERDINTASUNA DIRA LEHENTASUNAK

Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020an loratuko bada ere, aurten aurkeztu eta abian jarri da. Arrakastatsua eta bikaina izan da, beste behin, Korrika. Eta, nabarmentzekoa, bestalde, euskarazko hedabideak –tokikoak eta nazionalak– sustatu eta haien finantzaketaregonkortzeko, sektoreak eta erakunde publikoek lortutako hitzarmena. Sektoreko parte den Goiena Komunikazio Taldearen dako ere urte oso ona izan da: *Ttap* aldizkari digitalak Rikardo Arregi Saria jaso du, Goiena telebistak eta *Puntua*-k Tokikom sariak, eta Euskalit-en kudeaketa aurreratuko *A Ziurtagiria* Goienak.

Kirolean eta kulturaren, izen propio bi: Aitor Arregi *La trinchera infinita* filmarekin Zinemaldiko irabazle nagusia izan da eta 2020. urte hasieran beste hiru sariketa inportanteenetan protagonista izan daiteke; eta Markel Irizar: urteetan tropeleko maitatuenetakoak eta karismatikoenetakoak txirrindularitzari agur esan dio.



Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate,
Mirari Altube,
Goiatz Arana.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

www.goiena.eus

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Erredakzioa
Eneko Azurmendi,
Jone Olabarria,
Arantzazu Ezkibel, Maialen Santos,
Jokin Bereziartua,
Josu Bilbao, Miren Arregi,
Xabier Urzelai,
Aitziber Aranburuzabala,
Sergio Azkarate,
Eneko Azurmendi,
Oihana Elortza, Mirari Altube, Imanol Beloki,
Maider Arregi, Julen Iriondo,
Larraitz Zeberio.

Argazkiak
Erredakzioa, Aritz Gordo,
Zoe Soullard,
Ndank Ndank,
Unplash.com,
Zikoland.com, Golf.com,
Realsociedad.com,
Poli Karpo, Alberto Elozei
(G.B.E.), Montse Castillo
(Donostia Zinemaldia).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Iñaki Iturbe,
Amaia Martinez de Arenaza.

Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiano,
Ziortza Martin.

Administrazioa
Ane Bereziar, Iratxe Bengoa
eta Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kubxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta Whatsapp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:
SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Honako urtekari honen edizioa abenduaren 19an itxi du Goienak.

OÑATI

Bixente Urzelai 'Amiño' hil zen

Olabarrieta auzoko Amiño baserriko semea, 81 urte zituela hil zen Bixente Urzelai. Bera izan zen Gipuzkoako lehen artzain-txakur txapelketako irabazlea, 1968an. Oñatikoan ere askotan hartu zuen parte.

ARRASATE

Diputazioaren kereila frankismoari

Frankismoak Gipuzkoan egin zituen krimenen aurkako bi kereila jarri zituela jakinarazi zuen Foru Aldundiak. Horietako bat Florencia Olazagoiti arrasatearraren kasua izan zen.

BERGARA

J.M. Laskurain Zuzendaria

Jose Migel Laskurain Bergarako Txistulari Bandaren zuzendariak Bielorrusiako Orkestra Sinfonikoa zuzendu zuen, hango Gobernuak egin zion gonbidapena onartu ostean.



ARRASATE

Urrea Ruiz de Azuak eta Carrascalek

Eneko Carrascalek eta Malen Ruiz de Azuak urrezko domina bana lortu zuten Gipuzkoako atletismo txapelketan. Lehenak 15,17 metro egin zituen jauzi hirukoitzean eta bigarrenak 4,15 metro pertikan.



DEBAGOIENA

Bagarak agur esan zuen, tobera batekin

Urtarrilaren 31n Arrasateko Kulturaren egin zuten *Mugarri berrien bila* ekitaldian, tobera formatua berreskuratuz, agurtu zuten Bagara; izan ere, epaiketa erako antzezlan satirikoa elkartearen ekimenez sortu zen duela urte batzuk. Saio amaieran, Debagoiena eraldatzeko sortutako sare berriari ongietorria egin zioten.



DEBAGOIENA

Hainbat debagoiendar Euskadi-Murias taldean

Euskadi-Murias taldeak txirrindulariak aurkeztu zituen hilaren 24an. Hainbat debagoiendar izan ziren denboraldi hasierako argazki hartan. Goian, Jon Rivero, Jon Odriozola, Eneko Garai eta Ibai Agirreurreta. Behean, Julen Irizar, Garazi Erostarbe, Xubane Garai eta Mikel Aristi.



OÑATI

Sutea izan zen Maiatzaren Bata plazako etxe batean

Urtarrilaren 5ean, 03:25 aldera piztu zen sua Oñatiko Maiatzaren Bata plazako etxebizitza batean, garai batean Ikas Hiru akademia egon zen etxean. Hamabi lagun artatu zituzten, zazpi ume eta bost heldu, kea arnastu zutelako. Etxebizitzaren egurrezko azpiegiturak jaso zuen kalte handiena.



DEBAGOIENA

Hondakinak hobeto sailkatzeko kanpaina abiarazi zuten

"Hondakin gehiago sortu eta horien sailkapenean akats gehiago" egiten zirela ikusita, Debagoieneko Mankomunitateak *Kalitatez bereizi, hondakinak sailkatu* kanpaina jarri zuen martxan hilaren 22an. Zalantzak argitzeko eskuorriak banatzeaz gain, formakuntza ere eskaini zuten kanpainaren baitan.

ARRASATE

Arrakastaz betetakoa izan zen 'IShot!u' jaialdia

Shot! estudioari laguntzeko helburuarekin sortutako jaialdiak gorabehera ugari izan zituen, eta antolatzaileek eta musikariek hainbat traba eta oztopo gainditu behar izan zituzten. Hala ere, arrakastaz betetako jaialdia izan zen, eta Iñaki Bengoa oso eskertuta azaldu zen. "Harrigarria izan da, ez dut hitzik".





ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

Zorionak eta urte berri on!

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA




ANTZUOLA**460,5 kilo elikagai Saharako**

Anelkarrek eta Sagirik elkarlanean antolatutako zuten Piztu Itxaropena kanpainak harrera ezin hobea eduki zuen herrian. 460,5 kilo elikagai batu zituzten Saharako kanpalekuetara bidaltzeko.

BERGARA**Enrike Txurruka** Zuzendaria

Enrike Txurruka izendatu zuten Bergarako Musika Bandako zuzendari eta urtarilaren 27an lehenengoz zuzendu zuen banda. "Ilusioz" hartu zuen kargua Txurrukak.

**ARETXABALETA****Pikarraituz aurkeztu zuten**

Pikarraituz Asanblada Feminista aurkeztu zuten Aretxabaletan. "Herrian erreferente izan nahi dugu, borroka egiteko prest gaude", azaldu zuten herriko plazan egin zuten aurkezpen ekitaldian.

ANTZUOLA**Ainhoa Calonge** Udaltzaina

Anoetan bizi den Aingoa Calonge erreteriarra urtarilean hasi zen Antzuolako kaleetan aguazil lanak egiten. Herritarrengandik gertu egotea "ezinbestekoa" dela nabarmendu zuen.

**LEINTZ GATZAGA****Gatzagan izan ziren hainbat ziklista ohi**

Dorletako Santutegian ikusgai jarri zuten *Euskal Herriko txirrindulariak* erakusketa izan ziren hainbat txirrindulari ohi -hilaren 26an-: Jesus Aranzabal, Paco Galdos, Txomin Perurena, Marino Lejarreta eta Joseba Beloki. Bisitaren ostean, kultura etxean mahai-ingurua egin zuten guztiek.

**ARRASATE****Ikurrina jarri zuten Arizmendiarrrieta plazan**

1977ko urtarilaren 19an jarri zuten lehen aldiz ikurrina Arrasaten, Jose Antonio Altuna *Txatillo* alkate zela. 42 urte geroago, 2019ko urtarilaren 19an, alkate ohiak berak igo zuen ikurrina Arizmendiarrrieta plazan. Izan ere, aurrez, ikurrina non jarri bozkatu zuten herritarrek, eta plaza hori aukeratu zuten.

**BERGARA****'Musikarium' ikuskizuna estreinatu zuten Seminarixoa**

Urtarrilaren 13an estreinatu zuten Oihan Vegaren eta Xabier Zabalen *Musikarium*, haurrei zuzendutako ikuskizun didaktikoa, eta Seminarixoa bete egin zen. Ikuskizunak munduan zehar eramanez dituzten ikusleak, kontinentez kontinente. Bergaran estreinatu ostean, Euskal Herrian zehar eskaini dute emanaldia.

**OÑATI****Baratzeko Pikua parkea zabaltu zuten San Martin auzoan**

Jolasgunea urtarilaren 29an inauguratu zuten, bi zatitan banatuta: goiko aldean, hosto iraunkorreko arteak eta gerezio japoniarrek; eta behekoan, berriz, landareekin, urarekin eta harearekin jolasteko espazioa. Jolasgune horrekin, "jolasteko beste modu bat" sustatu gura izan zuen Udalak.



Durana
Hartz Klinika

FRPS: 83/19

Urte berri on!

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Implantologia	Hartz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

ARRASATE

GPS bidezko makina garbitzaileak

Kale garbiketa eraginkorragoa izateko, GPS bitartez kontrolatutako makina garbitzaileak jarri zituen Arrasateko Udalak. Langile kopurua handitu –13 berri kontratatu zituen– eta zerbitzu orduak areagotu zituen.

DEBAGOIENA

'La Retirada' ihesaldiak 80 urte

1939an, Katalunian zeuden milaka euskal errefuxiatuk ihes egin zuten Frantziara. *La retirada* deitu zioten ihesaldiari; 80. urteurrenean, omenezko erakusketa egin zion Intxorta 1937 Kultur Elkarteak.

ELGETA

Giro polita Mendi Mendia Racing jaian

Hirugarren edizioa izan zuen Mendi Mendia Racing jaiak Elgetan. Autoen erakusketa egin zuten plazan; eguerdian, triki-poteoa. Bazkarirako 120 pertsona batu ziren, eta iluntzean kontzertuak egon ziren Espaloian.

OÑATI

Txirrinka taldearen azken bira

Duela 18 urte mugikortasunaren alde lanean aritzeko sortu zen Txirrinka taldeak bere ibilbidea bukatutzat eman zuen. Helburu guztiak bete ezin izan zituzten arren, herritarren "babesa" eskertu zuten.



OÑATI

Agintariak Larraña etxea ezagutu zuten

Eusko Jaurlaritzak eta CEAR-Euskadik antolatuta, Larraña etxearen, asilo eskatzaileentzako aterpetxearen, egunerokoa gertutik ezagutzeko aukera izan zuten hainbat agintarik. Hain zuzen ere, bertan izan ziren Jonan Fernandez Giza Eskubideetarako idazkaria eta Patricia Barcena CEAR Euskadiko zuzendaria.



BERGARA

Sei urteko kartzela-zigorra Benito Canterori

Lau emakumezkoren aurka egindako sexu erasoengatik sei urte eta hiru hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zion Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak Benito Cantero bergararrari. Sententzia jakitean, elkarretaratze jendetsua egin zuten herritarrek plazan, Martxan-terek deituta. Udalbatzak ere bat egin zuen elkarretaratzearekin.



ARAMAIO

Aramaioarrak nagusi Bertso Txapelketako final-laurdenetan

Arabako Bertsolari Txapelketako hirugarren eta azken final-laurdena egin zuten Aramaion. Lehen hiru postuak etxean geratu ziren eta Xabi Igoak, Andere Arriolabengoak eta Peru Abarrategik lortu zituzten, hurrenez hurren. Finalerdietarako bertsolariak ere zeintzuk izango ziren bertan erabaki zen.

BERGARA

Boluko frontoia eta Zubietako zubia inauguratu zituzten

Estalkia jarri ostean, otsailean ireki zuten berriro ere Bolu auzoko frontoia. Ekitaldia egin zuten udal ordezkariak, estaldura egin zuten arkitektoak eta hainbat herritar eta auzotarrek ere. Era berean, 6 hilabetez lanetan –eta, ondorioz, itxita– egon zen zubietako zubia ere ireki zuten, eraberrituta.



San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista

Urte berri on!

ARETXABALETAKO

Bolo afizioa berpizteko ahaleginetan

Bola-jokoa berreskuratzeko taldetxo bat elkartu eta bolatokia behar bezala txukundu ostean, edonorendako zabaldu zuten. Helburua da azkenaldian galtzen zebilen bolo zaletasuna gazteen artean indartzea.

ANTZUOLA

Ondareaz eta larrugintzaz hausnartuz

Larrugintzaren garrantziaz eta herriko ondare historikoa balioan jartzeko egin daitekeenaz hausnartu zuten herriko hainbat eragilek. Batzarretik irtendako ideiak Kultura batzordera eraman zituzten.

ARRASATE

Amaia Albes Diseinatzailea

Amaia Albes diseinatzaileak Amaia Ramirez aktorea jantzi zuen Goya sarietarako. Gris antrazita koloreko eta satinezko soinekoa egin zion Albesei, neurrira.



DEBAGOIENA

'Mihi-bero' jokoa aurkeztu zuten

Nerabeekin sexualitatea lantzeko *Mihi-bero* mahai-jolasa aurkeztu zuen Txatxilipurdik. Sexualitatea euskaraz lantzeko beharra ikusita, 12 urtetik gorakoei zuzendutako jokoa abiarazi zuen txatxilipurdik.



DEBAGOIENA

Elkarretaratzeak, Kataluniako buruzagiak babesteko

Kataluniako buruzagi sozialen eta politikoen kontrako epaiekin hastearekin batera, elkarretaratzeak deitu zituen Gure Esku-k, eta horiekin bat egin zuten hainbat herritan. Arrasaten, Aretxabaletan, Oñatin eta Antzuolan, demokrazia, konponbidea eta askatasuna aldarrikatu zituzten herritarrek.



DEBAGOIENA

Maialen Axpe eta Ointxe Araski nagusi DKSn

Debagoieneko Kirol Sarien ekitaldiak sari ugari banatu zituen Amaia antzokian. Nagusia Maialen Axpe atletarentzat izan zen eta kirolari onenarena Ointxe Araski kadete mailako saskibaloitaldeak jaso zuen. Goienera saria Xabier Infante *Artza*-k eraman zuen eta Martin Perez eskoriatzarrak hiru sari jaso zituen.



ARRASATE

1936ko gerrak Arrasaten izandako eragina, liburu batean

Intxorta 1937 Elkartearen eskutik, eta Memoriaren Mahaia eskatuta, 1936 eta 1956 urteen artean bizitako injustiziak batzen dituen *Gerra, erresistentzia eta frankismoa* izeneko liburua aurkeztu zuten Kulturaten. Juan Ramon Garaik eta Miren Altunak osatutako bildumak 106 lagunen testigantzak batu zituen.

ARRASATE

'Humanity at music' Sinfonia Kooperatiboa estreinatu zuten

Esperientzia kooperatiboa dantzatu eta abestu egin daitekeela erakusteko asmotan, *Humanity at music* ikuskizuna antolatu zuten Amaia antzokian. Bertan, 200 lagundik gora aritu ziren; besteak beste, Euskadiko Orkestra, Kukai dantza taldea, Jon Sarasua, Katixa Agirre eta Pili Kaltzada.



ARRASATE

Azken agurra egin zioten Paco Garcia sozialistari

28 urtez Arrasteko zinegotzi izandako Paco Garcia sozialista 65 urte zituela hil zen otsailaren 2an. Agur jendetsua eman zioten Arrasteko Aldai parkean egindako hileta zibilean, eta bertan izan ziren, besteak beste, Idoia Mendia, Patxi Lopez, Eneko Andueza, Jesus Eguiguren eta Denis Itxaso.

**J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea**

RPS: 258/18

Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
www.gorosabeldental.com

Bisita ezazu gure webgune berria: www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- Eskaner digitala diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, kirurgia eta gainontzeko tratamenduak.

Zorionak eta urte berri on!

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENO!!

BERGARA

Soraluze enpresaren lantegi berria

Begarako Soraluze makina-erreminta kooperatibak ekoizpen lantegi berria jarri zuen martxan Mekolalden. Instalazioa neurri eta potentzia handiko makinaren gama berri bat fabrikatzera zuzenduta dago.

OÑATI

Arantxa Lasagabaster eta Maximo Zumalde

Artzainak

Zumalde eta Lasagabaster araoztarrak omendu zituzten Artzain Eskolan, "beti kolaboratzeko prest egoteagatik"



ARRASATE

Urteurrenak AEDk eta Txatxilipurdik

AEDk eta Txatxilipurdik elkarrekin ospatu zituzten urteurrenak 23an. Lehenak, 35 urte; bigarrenak, 25. Arrasateko konpartsaren kalejirara eta dantzarien emanaldiaz goatzera jende asko gerturatu zen.

ANTZUOLA

Mikel Garitano Eskiatzailea

Superkonbinatu deritzon txapelketan Espainiako txapeldun izan zen Mikel Garitano antzuolarra. Eski alpinoko 16 urtez azpikoko txapelketa La Molina estazioan jokatu zen.



DEBAGOIENA

Martxoaren 8ko grebak kaleak bete zituen

Jendetza batu zen Debagoieneko herrietan Martxoaren 8aren harira egindako manifestazioetan. *Heteropatriarkatu kapitalistari planto! Bizitzak erdigunean!* izan zen 2019ko aldarrikapen nagusia, nahiz eta adin askotariko herritarrek bestelako mezuak zituzten pankartak eta kartelak ere eroan zituzten.



ARETXABALETAKO

Miriam Urkia euskaltzainak, sarrera-hitzaldia

Miriam Urkia aretxabaletarra euskaltzain oso izendatu zuten eta herrian bertan izan zen izendatze-ekitaldia, martxoaren 30ean. "Ohorea" izan zen, Urkiaren esanetan, euskaltzainen, instituzioetako ordezkarien eta herritarren aurrean izendatua izatea. Aretxabaletakoak hiztegiaren gainean egin zuen berba sarrera-hitzaldian.



ANTZUOLA

Errekak Enpresa Nazioartekotzeari saria jaso zuen

Negozio ildo bakoitzeko nazioartekotze modelo ezberdina izateagatik, Enpresa Nazioartekotzeari saria jaso zuen Antzuolako Erreka enpresak. Hiru negozio unitate, hiru nazioartekotzeko modelo eta salmenten %50 baino gehiago kanpoko merkatuetan zabaldurik izatea baloratu zuen Bazkundeak.



ARETXABALETAKO

Aitor Sarasuaren omenez, 'Hegotik iparrerantz'

Aitor Sarasua Maritxalar bertsolaria gogoan izan zuten martxoaren 16an, Aretxabaletako Ibarra kiroldegian egindako *Hegotik iparrerantz* ikuskizunean. Jende ugari bildu zen antzerkia, kantaldiak eta dantza uztartu zituen ikuskizunaz goatzeko, hainbat musikari eta bertsolariarekin batera.





EGUZKIGRAF inprenta

Tel.: 943 79 18 44

info@eguzkigraf.com

Industrialdea F-O-4

ARETXABALETAKO



2020a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.

Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskaintzen segituko dugulakoan.

OÑATI

Selma Huxley Barkham beka

Selma Huxley Barkham beka eman zuen lehen fruitua, Jone Arrazola eta Irati Garai antropologoek *Oñatiko emakumiak errekautean. XX. mendeko komertzio txikixaren etnografia feminista bat*

BERGARA

Jose Luis Elkoro

Bergarako alkate ohia

EH Bilduren komunitateak, MugiDa! izenekoak, Jose Luis Elkoro eta 1977ko Bergarako Alkateen Mugimendua osatu zuten alkateak omendu zituen, Bilbon.



ARRASATE

Azken agurra Sagra Lopezi

Arrasateko Aldai parkea txiki geratu zen, martxoaren 4an, emakumeen eskubideen aldeko borrokan urteak eman zituen mugimendu feministako kide Sagarrio Sagra Lopezi azken agurra egiteko.

ARETXABALETAESKORIATZA

Idoia Elexpuru eta Lidia Garcia

Kirol monitorea

Hirugarrenez egin zuten Aresko martxa eta 500 bat lagun batu zituen. "Kirolean egindako lanagatik" omendu zituzten.



DEBAGOIENA

Arteak Ireki ekimenarekin, kulturgileak kalera

Arteak Ireki ekimenaren baitan deitutako protesta ekitaldiek jende asko batu zuten bailarako hainbat herritan. Taberna eta lokal txikietan kultura ekintzak mugatu gura zituen Jaurilaritzaren dekretuaren kontrako agerraldia izan zen eta musikariekin batera beste sortzaile eta artista batzuk ere batu ziren ekimenara.



ARRASATE

Jaioberri bat hilda agertu zen eta ama atxilotu egin zuten

Arrasateko Galizia kalean (Santa Marina) jaioberri bat agertu zen hilda, martxoaren 3an. Haurra plazenta eta guzti aurkitu zuten, auto baten inguruan. Egurdi aldera eman zuen abisua auzotar batek, eta Ertzaintzak adingabeko emakume bat atxilotu zuen gertaerarekin lotuta.



OÑATI

Bi oñatiar garaile Emakume Master Cup-en

Uxue Osés eta Madalen Etxegarai gazteek 18-15 irabazi zuten Emakume Master Cup Txapelketako finala, promozio mailan. Hasiera ez zen samurra izan eta Granado eta Lakuntza aurkariak aurretik joan ziren. Norvegiagokak tanto politak utzi zituen, eta, berdinketara heldu ostean -12-12-, oñatiarrak nabarmendu ziren.

ANTZUOLA

Deskargako autobide berria zabaldu zuten, obrak bukatuta

Bost kilometro luze den Deskargako errepide zatia irekita, Beasain eta Bergara arteko korridorea amaitu zuten. Hala, 23 kilometroko bidea 12 minutura murriztu zen, eta, momentuz, doakoa den arren, autobideak bidesaria izango du. Obrek 25 hilabete iraun zuten, 43 milioi euroko inbertsioarekin.



ARAMAIO

Manex Agirre, bigarren, Arabako bertsolari txapelketan

Manex Agirre Arabako bertsolari txapelketako buruz burukora heldu zen, martxoaren 30ean. Iñaki Viñasprekin lehiatu ostean, baina, bigarren sailkatu zen. Gainerako aramaiorrei dagokienez, Igoa gutxiagatik ez zen azken lehian izan, eta Abarrategik beterranoen patxada berarekin jardun zuen.



BERGARA

Pertsona bat hiltzearen atxilotuta

Hutsik zegoen Donostiako eraikin bati su eman zion martxoan, eta sute hartan lagun bat hil eta beste bi zauritu ziren. Gertakariongatik, 49 urteko gizon bergarar bat atxilotu eta kartzelara bidali zuten.

ESKORIATZA

Eskoriatza, Maila Nazionalera

Areto futbol taldeak garaipena behar zuen matematikoki Maila Nazionalera igotzeko, eta Araiako Zirauntza taldearen aurka 4-3 irabazi ostean lortu zuten igoera Eskoriatzako mutilek.

OÑATI

Lan antolaketaren gaineko kongresua

Nahi dugun lanaren etorkizuna: eztabaida globala izeneko nazioarteko kongresua egin zuten Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundean. Lehendakaria eta Mikel Biain alkatea bertan izan ziren.

OÑATI

Andoni Goitia Bertsolaria

Goitiak herriko txapelketako bigarren txapela eskuratu zuen, buruz burukoan Joseba Lasagabasterri gailendu ostean. Bigarren aldia zuen Oñatiko bertsolari txapela jantzen.



BERGARA

Binakako txapelketako txapela Rezustarentzat

Beñat Rezustak eta Danel Elezkanok irabazi zuten Binakako Txapelketa apirilaren 7an. Final parekatuan, 22-19 irabazi zieten Zabalari eta Irribarriari. Gorriak hasieratik jarri ziren aurretik, nahiz eta urdinek partidua berdintzea lortu (10-10 eta 16-16). Irribarriak pilota txapara bota ostean hasi zen jaia zale gorriendako.

DEBAGOIENA

Bat-bateko euri jasak arazoak sortu zituen Antzuolan eta Oñatin

Ur asko bota zuen apirilaren 15ean, eta Antzuolako herriko hainbat gunetan urak gainezka egin zuen. Kalebarrenen, esaterako, estolderia hautsi ostean. Torresorua atzealdeko bolatokia ere urez bete zen. Oñatin, berriz, Kalegoiena bidean ur putzu handiak sortu, eta Roke Azkune kaleko garajeetara ura sartu zen.



ANTZUOLA

Bidegorria Bergararaino iristeko eskaera

Antzuolatik Bergararako bidegurutzeraino moduan handik Bergarako herrigunera arteko zatian, hau da, Urteaga kalean ere bidegorria egitea eskatu zuten hainbat antzuolarrek. Hala, *Herriak lotu* bizikleta martxa egin zuten apirilaren 6an, eta, era berean, esku-titza helaraziko zioten Gipuzkoako Mugikortasun diputatuari.

ELGETA

Zebra-muskuilu bat agertu zen Aixolako urtegian

Zebra-muskuiluen presentzia detektatzeko propio ipinitako plaketan topatu zuten. Ordutik egindako behaketetan ez zen besterik aurkitu, baina hedapena saihesteko prebentzio neurriak hartu zituzten. Hala, urtegia partzialki hustu eta urtegia beheara doan 700 metroko tartea aztertu zuten.

ARRASATE

Emakumezko baten gorpua aurkitu zuten Deba ibaian

Arrasate eta Bergara artean dagoen Ekilore loradenda inguruan topatu zuten 54 urteko emakumezkoaren gorpua; arrasatearra, udaltzainen esanetan. Ur gainean eskumako ertzean flotatzen zegoen. Auzitegiko medikuak aztertu ostean, ez zuten kriminalitate zantzurik aurkitu. Buruan kolpea zeukan.

LEINTZ GATZAGA

Herriak hurbiltzeko asmotan, 'Leintz lotzen' eguna

Bailarako herriak eta pertsonak hurbiltzeko asmotan, Gatz Bidie ezagutzera eman eta VHL sindromea ikertzeko dirua lortzeko asmoz antolatu zuten *Leintz lotzen* eguna. Elkarteko kideek, Sendabidek, Hustu Ganbara herri egitasmoak eta hainbat norbanakok elkarlanean egindako egitasmoa izan zen.



DEBAGOIENA

KUP taldea bigarren, Gallus nazioarteko abesbatza lehiaketan

Kup taldeak bigarren saria eskuratu zuen apirilean Mariborko (Eslovenia) Gallus nazioarteko 15. abesbatza lehiaketan. Hamar urteren ondoren, lorpen izugarria eskuratu zuen taldeak, eta partaide diren Amaia Igartua eta Karlos Etxanizekin izan zen GOIENA, lehiaketa nola bizi izan zuten ezagutzeko asmoz.

oerlikon
balzers

Gabon
zoriontsuak
guztioi!

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

BERGARA**Bergarako IAT tailerra, kolapsatuta**

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko Gipuzkoako tailerrak kolapsatuta egon ziren, baita bergarakoa ere. Internet bidezko txanda uztailerako ari ziren ematen eta erabiltzaileen artean haserrea zen nagusi.

OÑATI**Potx eta Lotx**
Pailazoak


Potx eta Lotx pailazoek *Etxean* izeneko ikuskizun eta disko berria aurkeztu zuten. Abentura berrian murgilduta, osabak alde egitean pailazoaren bihurrikeriak ditu ardatz.

**DEBAGOIENA****Omenaldia demokraziako alkateei**

Apirilaren 5ean, demokrazia garaiko lehen alkateak omenduko zituen Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak Gernikako Batzarretxean; esaterako, Jose Luis Elkorro, 1979ko lehen hauteskundeetatik 40 urte igaro zirela eta.

OÑATI**Aitor Tatiegi** Bertsolaria

Lasturren jokatu zuten Gipuzkoako Eskolarteko finala, eta bertan, hain zuzen ere, Aitor Tatiegi oñatiarrak eskuratu zuen txapela, "saio orekatua" egin ostean.



ITURRIA: ESPAINIAKO GOBERNUA

DEBAGOIENA**EH Bildu garaile Espainiako hauteskundeetan**

Eskualdeko bederatzi herritatik seitan izan zen nagusi EH Bildu eta Leintz bailarako hiruretan EAJ: Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Boto kopuruan ez zen alde handirik egon hiru herri horietan, ezta Bergaran ere. EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK gora egin zuten; PPk eta, batez ere, Elkarrekin Podemosek behera.

DEBAGOIENA**Giro ederrean, bailaratik pasa zen 21. Korrika**

Antzuolatik salbu, bailarako herri guztietatik igaro zen Korrikaren 21. edizioa. Eguerdian sartu zen Debagoienera, eta, Oñatitik eta Bergaratik pasa ostean, Eibarrerako bidea hartu zuen. Domeka goizaldean bueltatu zen, Aramaiotik sartuta, eta Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagatik igaro zen.





Gualbi

asesores

ZERGA, KONTABILITATE ETA

LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

URTE
BERRI
ON!!

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48

onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

BERGARA

Gaztetxeko lapurretak salatu zituzten

Maiatzaren 5etik 6rako gauean, lapurretak egin zituzten gaztetxean; hala, lapurreta horiek salatzeke elkarretaratzea egin zuten maiatzaren 9an San Martin plazan. Dirua osteaz gain, apurketak egin zituzten.

ARRASATE

Udala, fiskaltzarekin harremanetan

Udalak fiskaltzari eskatu zion neurriak hartzeko herriko lapurreta gehienak eragin dituen taldearen aurka. 16 lagunek osatutako taldearen aurka 189 aktuzio zeudela azaldu zuen alkateak.

BERGARA

J. Javier Barkero Entrenatzailea

Jose Javier Barkero BKEko futbol saileko gizonetzkoen lehen taldeko entrenatzaile izendatu zuten. Mikel Juaristi azkoitiarraren lekua beteko du –lau urte egin ditu Juaristik BKE–.

ARRASATE

Maialen de Arroiabe Estilista

Maialen de Arroiabe arrasatearrak jantzi zituen Eurovisionera joan zen Espainiako Miki Nuñez abeslaria eta taldekideak. *Look* "moderno eta elegantea" eraman zuten.



ESKORATZA

Euskal Herri osoko jendea Puntaik Puntan

Puntaik Punta jaialdia ospatu zuten maiatzaren 3tik 5era Eskoriatzan. Kanpokoei eta bertakoei eskualdeak dituen natura, ibilbideak eta bestelako turismo aukerak erakusteko asmoarekin sortu zuen orain dela lau urte Mankomunitateak jaialdia. "Euskal Herri osotik" etorritako jendea ibili zen; batez ere, ibilbide tematikoetan.



DEBAGOIENA

Aldaketa Bergaran Udal hauteskundeetan

Debagoienean, EH Bilduk irabazi zituen maiatzaren 26ko udal eta foru hauteskundeak eta EAJ izan zen bigarrena. EH Bilduk bost herritan irabazi zuen, eta lehendik zeukan nagusitasuna handitu zuen –Bergaran alkatetza berreskuratu zuen–; eta EAJk eutsi egin zion Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan.



ARRASATE

Ormaetxea eta Gorroñogoitia omendu zituzten

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartekoek ohiko batzar nagusia egin zuten maiatzaren 10ean. Aukera aprobetxatu zuten Arrasateko mugimendu kooperatibo-ko bi fundatzaile omentzeko: Jose Maria Ormaetxea eta Alfonso Gorroñogoitia. "Balio kooperatiboak defendatzearren" nabarmendu zituzten.



DEBAGOIENA

Realak Kopa ekarri zuen eta Euskal Herria Kopa jokatu zen

Realak Erreginaren Kopa irabazi zuen maiatzaren 11n, Granadan. Hala, kopa zaleei eskaintzera etorri ziren hilaren 16an: Aretxabaletan eta Arrasaten izan ziren futbol jokalaria. Bestalde, 28an, Euskal Herria Kopako finalerdia jokatu zuten Mojategin Realak eta Alavesek, eta txururdiak irabazi zuten (1-0).



Aixa
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69



URTE BERRI ON!!!!

BERGARA**Agorrosin Berria egiteko hitzarmena**

Maiatzaren 13an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuten Udalaren eta BKEren arteko akordioa: Agorrosin Berria egitea. Agorrosingo berdegunea artifiziaila izango da, beranduenez, 2023rako.

OÑATI**Oñatiko eskalada-gunearen proiektua**

Seguruago eta ingurua babestuz eskalatzeko egindako lanaren berri eman zuten Udalak, Aldundiak eta Mendi Federazioak. 30 bat urte dira Araotzen eskalada bideak zabaltzen hasi zirela.

ANTZUOLA**Debagoieneko Dantzari Eguna**

Maiatzaren 4an, Debagoieneko Dantzari Eguna ospatu zuten Antzuolan: guztira, 170 dantzari eta txistulari elkartu ziren. Arrostitz, Lore Gazteak, Leizarra, Oñatz eta Oinarin elkarteak batu ziren.

ARAMAIO**Aitor Ugarte Bertsolaria**

Legution jokatu zuten, maiatzaren 4an, Arabako eskolarteko bertsolarien txapelketa, eta Aitor Ugarte aramaiarra bigarren sailkatu zen. Aroa Arrizubieta izan zen irabazlea.

**OÑATI****'Sanprubusa' taberna zerbitzua eskaintzen hasi ziren Elorregin**

Sanprubusa, taberna den autobusa, inauguratu zuten maiatzaren 4an Elorregin, eta 6an hasi ziren zerbitzua eskaintzen. Jende asko dabilen lekua dela kontuan hartuta, eta bertan inolako zerbitzurik ez zegoela ikusita, taberna bat jartzeko ideia etorri zitzaion burura Jon Mujika bergararrari.

**ARAMAIO****Julian Unzueta alkate ohia hil zen maiatzaren 28an**

Julian Unzueta, 1972 eta 1979 artean Aramaioko alkate izandakoa, hil zen maiatzaren 28an, 89 urterekin. Oso pertsona maitatua herrian, seme kuttun izendapena jaso zuen duela bi urte, EAJren udal taldeak proposatu eta udalbatza osoaren adostasunez. Omenaldia egin zioten 2017ko urrian, egindako lana eskertuz.

**BERGARA****Konexio zuzena ISSko astronauta batekin**

Aranzadi Ikastolakoez zuzeneko konexioa egin zuten Nazioarteko Espazio Estazioan dagoen Nick Hague astronautarekin maiatzaren 17an. Horretarako, Australiako irrati-amateur baten laguntza izan zuten. Hamar minutuko tartea izan zuten astronautarekin berba egiteko: ikasleek galderak egin zitzioten, ingelesez.

**ELGETA****'Goikoetxe' harri-jasotzaileak apustua irabazi zuen**

Lehenengo apustua izan zen Imanol Albizu *Goikoetxe*-rendako; jokatu, eta baita irabazi ere: 6.000 euro poltsikoratu zituen Azpeitiko apustuan, Izeta IV. aren aurka, maiatzaren 4an. Hamar minutuko hiru txandatan *Goikoetxe*-k 121 altxaldi egin zituen 125 kiloko harriarekin; eta Izetak, aldiz, 116.

**OÑATI****Longo Borghini italiarra nagusitu zen Biran**

32. Emakumeen Bira irabazi zuen Trek taldeko Elisa Longo Borghini italiarrak, Oñatin. Laugarren eta azkeneko etapa jokatu zuten maiatzaren 25ean, Birako etapa luzeena eta gogorrena. Hain zuzen, italiarrak lau segundoko aldearekin irabazi zuen etapa, eta, modu horretan, liderraren maillota ere jantzi zuen Longo Borghinik.



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA



**Gabon zoriontsuak
eta urte berri on
guztioi!**

BERGARA

Seminarioko parkinga, etenda

Seminarioko parkinga egiteko prozesua eten egin zuen jarduneko Udal Gobernuak eta hurrengo Udal Gobernuaren eskuetan utzi zuen. Herritarrek, era berean, 1.703 sinadura batu zituzten proiektua eteteko.

ANTZUOLA

Gizonezko bat hil zen, auto istripuan

Bi ibilgailuren arteko istripua izan zen ekainaren 26ean, Antzuolatik Bergarara bidean, GI-2632 errepidean. Ondorioz, 85 urteko gizonezko antzuolarra, A.M., bertan hil zen; eta emakume bat zauritu.

OÑATI

Jerardo Elortza Idazlea

Jerardo Elortzaren liburu sortako bigarren zenbakia, *Enarak*, aurkeztu zuten. Gerra ostean Oñatira joan ziren hamalau migratzaileraren testigantzak jaso zituen liburuak.



ARRASATE

Dragoiko gimnastentzat kirol sariak

Espainiako Aerobik Txapelketan egindako lanagatik Arrasateko gimnastek jaso zuten Arrasateko kirol sarietako sari nagusia. Kirol ibilbidearen gaineko saria taldeko entrenatzaile Arantzazu Zubiak irabazi zuen.



OÑATI

Kuartela lagatzeko, 2.000 sinadura batuta

Dozenaka herritar elkartu ziren, ekainaren 15ean, Oñatiko Foruen plazan, *Jare kuartela* mezuarekin argazki erraldoia ateratzeko. Ia 2.000 sinadura lortu zituzten Guardia Zibilari Oñatitik joan dadila esateko eta politikariei gaian inplika daitezen eskatzeko. Goizean hasitako festa giroak gauera arte iraun zuen.



DEBAGOIENA

Harrotasun Eguneko manifestazioa Oñatin

Harrotasun Egunaren harira, ekainaren 28an, Koordinadora TransMarikaBollo Feministaren eskutik bailara mailako manifestazioa egin zuen Oñatin. Bergaran, berriz, Gune Anitzaren Zigilua ekimena abiarazi zuten, genero aldagai guztiak onartu eta eraso LGBTIfobikoak gaitzetsiko dituzten herriko gunek identifikatuta.



BERGARA

Frankismoaren kontrako kereila udal ordezkarien aldetik

Bergarako jarduneko udalbatza osatzen zuten alderdi guztietako bozeramaileek, frankismoaren biktimen familiarrek eta Intxorta 1937 elkarteko hainbat kidek frankismoaren kontrako kereila kriminala aurkeztu zuten. *Frankismoaren inpunitateari tolerantziarik ez* lelopean elkarretaratzea egin zuten.



ARRASATE

Pello Urizarrek EAko idazkari nagusi izateari utzi zion

Hamar urtez EAko idazkari nagusi izan den Pello Urizar arrasatearrak dimititu egin zuen, ekainaren 25ean. Lehen lerrotik "pozik" erretiratzeko zela eta "militante soil" izatera itzuliko zela adierazi zuen orduan Urizarrek; Laboral Kutxara itzuliko zela lanera. Agintari ugari babes mezua helarazi zuten.

ANTZUOLA

Aldagelak berritzeko hitzarmena Udalak eta Aldundiak


Eztalan aldagela berriak egiteko hitzarmena sinatu zuten Antzuolako Udalak eta Gipuzkoako Aldundiak. Udalak 110.000 euroko ekarpena egingo du eta Aldundiak, 110.000 eurokoa. Aldagelako lanen beharra autobideak eragindakoa denez, Bi-degiren aseguruak beste 90.000 euro jarriko ditu.

Xenkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Gozokiak
- Pizzak, hanburgesak, hot dogak...
- Opariak

Urte berri on!!!



OÑATI

Lege Soziologiako Erakundeak 30 urte

30 urte bete zituen Oñatiko Lege Soziologiako Erakundeak, eta Research Committee for the Sociology erakundeak kongresua egin zuen, *Belaunaldiak elkartuz justizia globalerako* lelopean.

ANTZUOLA

Udalak gaztetxea itxi zuen

Antzuolako Udalak gaztetxearen eraikina guztiz ixtea erabaki zuen. Azaldu zuenez, zaborrarekin, sute batekin eta lapurretekin topo egin zuten. Soluzioa eman nahi izan zioten arren, alferrikakoa izan zen.

ELGETA

'Elgeta' soinujoleari omenaldia

30 lagun inguruk hartu zuten parte ekitaldian, bere bizitzako paso txiki bat antzetzuz. Antzerkia egiteaz gain, arin-arina eta fandangoa dantzatu zituzten. Ana Gillegi eta Garbiñe Sarasketa izan ziren aurkezle.

OÑATI

Oihana Kortazar kirolaria

Salomon taldeko Oihana Kortazar elgetarra izan zen debagoiendar onena Zegama-Aizkorri lasterketan. Emakumezkoen sailkapen orokorrean bosgarrena izan zen.



LEINTZ AGTZAGA

Motor gidari bat hil zen, auto batekin talka egin ostean

GI-627 errepidean, Arabako mugatik oso gertu, motor baten eta auto baten arteko istripua izan zen ekainaren 7an, 07:10 inguruan; motor gidaria, Aretxabaletan bizi zen 36 urteko gizonezko bat, bertan hil zen. Ertzainek Marulanda auzoan geratu zuten auto gidaria eta positibo eman zuen alkohol eta drogen kontrolean.



ESKORIATZA

Txoko Feminista inauguratu zuten

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeak – "Genero berdintasuna lantzea helburu duen emakumez eta gizonez osaturikoa"– Txoko Feminista inauguratu zuen Emakumeen plazan. Leire eta Irati musikariak izan ziren ekitaldia girotzen, eta herritarrei Feminismoa Bizirik taldearen informazioa eman zitzaizen.



BERGARARA

Gonzalez Chirlaqueren azken kontzertua eta Txurrukaren lehena

Udal Pilotalekua lepo beteta zela, Pentekoste jaien barruan eta emozio handiarekin esan zuen agur 32 urtean Bergarako Musika Bandako zuzendari izan den Alfredo Gonzalez Chirlaquek. Entzuleen txalo zaparrada jaso ostean, ordutik Bergarako bandako zuzendari den Enrike Txurrukak jaso zuen batuta.



DEBAGOIENA

Debagoieneko udalbatza berriak eratu ziren

Leintz Gatzagan izan ezik, Debagoieneko herri guztietan eratu ziren udalbatza berriak, ekainaren 15eko eguerdian. Horiekin batera, alkateen kargua hartzea ere gauzatu zuten eta bi izan ziren egiteko horretan berriak: Gorka Artola Bergaran eta Izaro Elortza Oñatin. Irudian, Oñatiko eta Eskoriatzako udalbatzen eraketa.

MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Jai Zoriontsuak!

DEBAGOIENA

Justiziak berriro arrazoia Mondragoni

Auzitegiak osorik baztertu zuen Ordainduk planteatutako errekurtsua, eta 2018ko uztailan Bergarako epaitegiak emandako epaia berretsi zuen. Mondragon "pozik" agertu zen; Ordaindu, aldiz, "haserre".

OÑATI

Industrializazioari kantua Ganbaratik

Ganbara faktoriak hainbat kontzertu egin zituen herriko fabriketan, ondare industrialari balioa emateko. Industrializazioa Oñatin ekimenaren baitan egin ziren; azkena, Ulman, uztailaren 7an.

ELGETA

Eduardo Zubiaurre Confebask

Elgetan bizi den Eduardo Zubiaurrek uztailaren 18an hartu zuen euskal enpresarien konfederakuntzako lehendakari kargua, Kontseilu Nagusiak aho batez berretsita.



ARRASATE

Ibai-arteren eskutik, Arrasate Blues

Ibai-arte Merkatari eta Zerbitzu Elkartek antolatuta, herriko tabernariekin eta Udalarekin batera, uztailaren 19a eta 21a bitarte hainbat blues talderen kontzertuek musikaz zipriztindu zuten herria.



ARRASATE

Dragoiak batailoien bunkerra aurkitu zuten

Espainiako gerra denborako bunker bat eta gerrako materiala aurkitu zituzten Arrasaten. Auzolanean bunkerra atontzeaz gain, azkenaldian batutako askotariko objektuak ere eman zituzten aditzera Intxorta 1937 kultur taldeak, Arrasate Zientzia Elkartek eta lurpeko objektu historikoak bilatzeko Oroimen Detekzio taldeak.



OÑATI

Xabier Ugarte oñatiarra aske geratu zen

Jose Antonio Ortega Lararen bahiketan parte hartzeagatik 22 urtez preso egon ostean, uztailaren 28an irten zen Topasko espetetik (Salamanca) Xabier Ugarte. Ehunka herritarrek txaloka hartu zuten Ugarte Oñatin, eta, hain zuzen, ongiatorriarengatik Oñatiko alkatearen aurkako salaketa jarri zuen Vox alderdiak.

ARRASATE

Joxe Ramon Elortza eta Jose Maria Ormaetxea hil ziren

Euskaltzale eta kooperatibazale Joxe Ramon Elortza Gorosabel uztailaren 15ean zendu zen, 74 urterekin. Bost egun geroago, uztailaren 20an, Jose Maria Ormaetxea hil zen, 92 urte zituela. Ulgor abiarazi zuten artean egon zen Ormaetxea, eta Mondragoneko lehen presidentea ere izan zen.



DEBAGOIENA

Diputatuek kargua hartu zuten; tartean, Romero eta Oiabidek

Gipuzkoako Foru Gobernuak uztailaren 1ean ekin zion lanari, diputatu berriek kargua hartu ostean. Horien artean zeuden Aintzane Oiabide eta Rafaela Romero debagoiendarrak ere. Kargua hartzearekin batera, hori irudikatzen duen lepokoa jaso zuten Markel Olano diputatu nagusiaren eskuetatik.

**ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:****BALORAZIO PACKA:**

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urteak aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere.

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzuliketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkio autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

Urte Berri On!**ZURICH**

MP del War Umelia Ninguemula

Catalana
Occidente
Seguros
Miliari Epaia Umelia

Montxon kalea 5 behea / 20560 / OÑATI

Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20

Faxa: 943 78 31 36

DEBAGOIENA

Palestinatik saskibaloian egitera

Basket Beats Borders ekimenaren barruan, Bergaran izan ziren Shatilako kanpalekuko Palestine Youth Club saskibaloia taldeko kideak. Jokatzeko teknikak ikasi eta Euskal Herria ezagutu zuten neskek.

ARETXABALETA

Herriko komertzioa sustatu nahian

Bezeroen erosketa ohiturak aldatu direlako eta merkataritzaren egoera aztertzeko abiarazi zuen Udalak Merkataritza Biziberritzeko Udal Plan berezia, Eusko Jaurlaritzaren eta Aretxarteren laguntzaz.

OÑATI

Bridges nazioarteko antzerkia Eltzian

Bridges Nazioarteko Antzerki Egoitzak mundu osotik etorritako hogeita artista batu zituen Oñatin, Eltzian. Komunitate-antzerkia egiten aritu ziren; hau da, antzerkia berezko erakundeetatik ateratzen.

DEBAGOIENA

Kattalin Linazisoro eta Irea Egaña

Euskarabenturako kideak

Beste 118 gazterekin batera, uztailaren 1ean hasi zuten Euskarabentura, Maulen; 31n bukatu, Getxon.



ANTZUOLA

'Euskal Y'-aren Gipuzkoako tartea, amaituta


Antzuola-Ezkio tartearen amaierarekin, Gipuzkoako Abiadura Handiko Trenaren plataformaren 57 kilometroak amaitu zituzten; %70, tunel barruan. Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua Antzuolan izan ziren lanak bisitatzen, uztailaren 24an.



ANTZUOLA

Lehenengoz, emakumezko kapitaina alardean

Antzuolako Mairuaren Alardeak emakumezko bat izan zuen kapitain lehenengoz. Hala, parekidetasunaren alde beste pauso bat emanez, Edurne Iturbek bete zuen Jose Angel Arbuluren postua. Horretaz gain, gizartera egokitzeko asmoz Mairuaren Alardeak bizi zuen eraldatze prozesuaren 10. urteurrena ospatu zuten.



ALDEDI

Urte berri on!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

OÑATI

Oñatiar batek sexu-abusu salaketa

Emakume batek salaketa jarri zuen Bilboko Aste Nagusian jasandako sexu abusuagatik. Hark salatu zuenez, abuztuaren 24an gertatu zen abusua, Pinpilinpaua konpartsaren txosnan.

ARETXABALETA

Arrapala plazatik Santakurtz kalera

Irisgarritasuna hobetzeko, herriko plazatik Santakurtz kalera arrapala bat eraiki zuten. Modu horretan, elbarriek eta eskailerak igotzeko zailtasunak dituzten herritarrek arrapala erabili ahal izango dute.

BERGARA

Mikel Aristi Txirrindularia

Mikel Aristi txirrindulariak Portugalgo Itzuliko etapa bat irabazi zuen. Frantziako Limousingo Tourraren bigarren etapan ere azkarrena izan zen 26 urteko bergararra.



ARETXABALETA

Oihana Aldai Futbolaria

Oihana Aldai 27 urteko aretxabaletarra eta egun Eibarko atezain denak pregoia irakurri eta txupina bota ostean hasi ziren aurtengo Aretxabaletako andramaixak.



BERGARA

Mundukide Fundazioko kideak, Mozambiken

Uztailaren 23tik abuztuaren 4ra bitarte, Mozambique iparraldeko Niassa probintzian ibili ziren proiektuak bisitatzen. Bi urtean behin bidaia egiten dute fundazioak programak dituen herrialdeetara, eta Mozambiken izan ziren. Egun, Mundukideren laguntza Mozambiqueko 15.000 nekazarirengana iristen da.



OÑATI

Markel Irizar txirrindulariak agur

Markel Irizar txirrindulari oñatiarrak erretiroa hartu zuen Donostia Klasikoan parte hartu ostean. Bertan omendua izan zen, eta gero, Oñatin harrera egin zioten herritarrek. Txirrindulariak esker oneko hitzak izan zituen herritarrekin: "Bihotzez, eskerrik asko hau posible egin duzuen guztioi".



OÑATI**Berritze eta handitze lanak Zubikoan**

Abuztuaren 1ean eman zieten hasiera Zubikoa kiroldegia eraberritzeko lanei. Orain arte berdegunea izan zenaren zati bat kendu zuten, eraikin zati bat egiteko eta bertan igerileku txikia egiteko.

DEBAGOIENA**Lapurretak gora egin zuten**

Batez ere, Aretxabaletan eta Eskoriatzan gertatu ziren lapurreta gehienak, herriko hainbat komertzio zein etxebizitzatan. Ertzaintzaren arabera, hutsik zeuden etxeak markatu eta egunetara bueltatzen ziren.

ARAMAIO**Aitor Ugarte** Mendi korrikalaria

Mendiko lasterketen munduko kopan gazte mailako lehen postu lortu zuen aramaioarrak. Ugartek lasterketa bertikala eta lineakoa egin zituen eta bietan bigarren sailkatu zen.

BERGARA**Mikel Mujika** Triatleta

Abuztuaren 25ean Vichy-n (Frantzia) egindako ironmanean lortu zuen Mujikak 2020an Hawaiiin lehiatzeko sailkatzea. Sailkapen orokorrean zazpigarren izan zen.

**ARRASATE****61 urteko gizon bat hil zen Udalatxera bidean**

61 urteko gizonetako bat hil zen abuztuaren 24ean Udalatx mendira bidean. Ertzaintzak jakinarazi zuen bihotz-geldialdia izan zuela eta larrialdi zerbitzuek ezin izan zutela ezer egin gizona salbatzeko. Antza denez, gizonetako bere ilobarekin zihoan Udalatxeko tontorrera eta ondoezik sentitu zen bidean.

**BERGARA****Realaren eta Osasunaren arteko norgehiagoka**

Agorrosingo berdegunean neurtu zituzten indarrak abuztuaren 3an Realak eta Osasunak. Donostiarrek irabazi zuten, 1-0, Ane Etxezarretak sartutako golari esker. Denboraldi-aurreko lehen partida izan zen bi taldeentzat, eta, Realak kontrola izan zuen arren, Osasunak arriskua sortu zuen hauen atean.

BERGARA**Elkartasun proiektuak bultzatzen Senegalen**

Begarako Ndank Ndank Elkartaren bidez, 31 debagoiendar izan ziren Senegalgo Dionewar herrian, abuztuaren 4tik 18ra bitarte. Elkartasun eta elkarbizitza sustatzea helburu zuen proiektu baten barruan izan ziren bertan. Besteak beste, graduazio makina bat eta 150 betaurreko graduatu eraman zituzten.

**Inork ez daki zaintzen zerbait,
sortu duenak baino hobeto**

Kontrata itzazu gure Mantentze Zerbitzuak:

- Gas-galdararen urteko azterketa.
- Joan-etorri eta esku-lan guztiak sartuta.
- Eta hemendik aurrera, **zure galdarak 15 urte bete arte, jatorrizko pieza guztiak barne.**

Sematec Guipúzcoa
Zerbitzu Tekniko Ofiziala
943 76 06 61
www.guipuzcoa.saunierduval.es



Saunier Duval

ESKORIATZA

Maixel Iparragirre, Soto del Realera

Soto del Realgo espetxera eroan zuten Frantziatik Marixol Iparragirre preso eskoriatzarra. Irailaren 4an Auzitegi Nazionalera eraman eta karguak zeintzuk diren jakinarazi ostean espetxeratu zuten.

DEBAGOIENA

Sinfonia kooperatiboa, arrakastatsua

Humanity at music sinfonia kooperatiboa Gasteizko Buesa Arenan eskaini zuten irailaren 14an: 1.000 artista –musikariak, dantzariak, bertsolariak...– eta goi-mailako eszenaratzea izan ziren protagonista.

ARETXABALETA

Iñaki Sarasua Marianista

Iñaki Sarasua aretxabaletarra Espainiako Marianisten nagusi izendatu zuten irailaren 12an. Datozen bost urteetarako izendatu dute: 2019-2024rako, hain zuzen ere.



OÑATI

Oteizaren lanak Arantzazun ezagutzen

Arantzazuko basilikaren fatxadako eskultura lanen instalazioaren 50. urteurrena dela eta, Oteizaren lana aitortzeko eta ezagutarazteko jardunaldia eta erakusketa egin zituzten Arantzazun.



ARRASATE

Saltzaileak "haserre" azokako egoerarekin

Azoka bizirik lelopean elkarretaratzea egin zuten Arrasateko azokako merkatari eta erabiltzaileek irailaren 27an. Bertan, erabiltzaile ugari batu zitzaizkien, gaur egun azokak bizi duen "egoera kas-karra" salatzeko. "Eraikina goitik behera datorkigu eta inor gutxiri axola zaio", adierazi zuten orduan merkatariak.



DEBAGOIENA

Arregiren eta Altunaren filmak, "arrakastatsu"

La trinchera infinita filmak sail ofizialaren bi sari lortzeaz gain –gidoi onenaren saria eta zuzendari onenaren saria–, Irizar eta Fipresci sariak ere lortu zituen Donostia Zinemaldian; filmik sarituen izan zen. Era berean, "arrasakastaz" estreinatu zen *Agur, Etxe-beste!* filma Zinemaldian eta Bergarako Seminarixoa.



ARAMAIO

Aramaioren gaineko argazkiak eta bertsoak liburuan

Begiz jotako koplak liburuaren aurkezpena egin zuten irailaren 20an, Sastiña bete-beteta zela. Alex Mendikute argazkilariaren 92 argazki jasotzen ditu liburuak, guztiak ere Manex Agirreren koplekin lagunduak. Liburuaren salmentatik lortutako diruaren zati bat *Aita Mari* ontziarendako izan zen.



BERGARA

Telesforo Monzon laborategia aurkeztu zuten Olaso dorrean

Olaso Dorrea Fundazioak Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategia aurkeztu zuen irailaren 12an Bergaran, politikari abertzalea zenaren sorlekuan. "Euskal Herriak gaur egun dituen erronkei aurre egiteko asmoz" sortu dute laborategia, bertako zuzendari Urko Aiartzak adierazi zuenez.



BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

ARRASATE**Ekain Zubizarretak, kartzela saihestu**

Fiskaltzarekin akordioa egin ostean kartzela saihestu zuen Ekain Zubizarretak. Aurreko egunetan, protestak izan ziren Arrasaten eta Bilbon, makroepaiketa zela eta.

BERGARA**Emakume futbolarietako omenaldia**

1994-1995 denboraldian sortu zen lehen nesken taldeko jokalaria omendu zituzten irailaren 5ean Agorrosinen ospatu zen emakumezkoen Bergara Hiria txapelketaren baitan.

ARRASATE**Euskal Kopako finala MURENTZAT**

Arrasateko taldeak bigarren urtez jarraian irabazi zuen, irailaren 29an, Euskal Kopa, Baskoniari 79-84 irabazita. Final handia jarraitzeko, Iturripeko harmailak bete egin ziren, Arrasateko taldeari babes emateko.

DEBAGOIENA**Elena Laka eta Kike Amonarriz** Topagunea

Elena Lakak Kike Amonarriz utzi zion Topaguneko lehendakari izan lekukoa. 2014ko apirilean hartu zuen lehendakari izan Lakak, eta bost urtez egon da karguan.

**ARRASATE****Alfonso Gorroño Goitia hil zen, mugimendu kooperatiboko kidea**

Arrasateko mugimendu kooperatiboaren fundatzaile izandako Alfonso Gorroño Goitia (Arrasate, 1924) irailaren 6an hil zen. 1955ean, Accion Catolicako beste lau kiderekin batera Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa garatzen hasi zen eta 1959tik, 24 urtez, Ulgorren presidente izan zen.

**ARRASATE****Omenaldia egin zieten frankismoko biktimei**

Debagoieneko frankismoaren errepresioa jasan zutenei omenaldia egin zieten irailaren 26an. Ekitaldi zabala bezain jendetsua izan zen; bertsolariak, dantzariak, abesbatzen emanaldia eta lore eskaintza izan ziren. Sei izen gehitu zituzten Jose Maria Arizmendiarrak plaza zuten monolitoari, eta oroigarria jaso zuten biktimen senideek.

**ARRASATE****Debagoieneko AEK-k egoitza berria ireki zuen**

Ikasturte berriarekin batera, egoitza berria estreinatu zuen Debagoieneko AEK-k irailaren 11n. Hala, 27 urtez Arrasateko Garibai kaleko eraikinean egon ostean, Arrasate erdian, Herriko Plaza ondoan dagoen Iturriotz kaleko 21. zenbakian izango du kokalekua aurrerantzean.

**ARETXABALETA****Andra Mari kooperatiba omendu zuten**

Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekua lepo bete zen abesbatzaren sanmigeletako kontzertuaz gozatzeko. Aurten, baina, 1962ko martxoaren 31n inauguratu zen Andra Mari janari-denda kooperatibako sustatzaileak izan ziren protagonista, eta kontzertuaren erdialdean omenaldi "xumea" jaso zuten kooperatibako sortzaileek.

**ARRASATE****Atletismo erakustaldia egin zuten Biteri plazan**

Luzera-saltoak eta pertika-saltoak eskaini zituzten punta-puntako atletek Arrasaten. Izan ere, Arrasate Atletiko Taldearen 75. urteurrena ospatzeko, Euskal Herriko atleta onentsuenak elkartu ziren. Hain zuzen, atletismoa herritarrei gerturatzeko izan zen ekitaldi haren helburua nagusia.



Kale barria 20 • Errekalde 8 • ONATI
Tel.: 943 78 01 54

Zorionak eta urte berri on!



BERGARA

Gazte baten gorpua topatu zuten

Bergarako 26 urteko gizonetako baten gorpua aurkitu zuten urriaren 28an, Anbotoko gailurretik gertu. Aurreko egunetik zegoen desagertuta; bilaketa lanetan zebilen helikopteroak aurkitu zuten.

DEBAGOIENA

BNI taldeak 2. urteurrena ospatu zuen

Arrasateko BNI Aukera Debagoiena taldeak ekitaldia egin zuen. Taldeko 20 enpresetako ordezkariak bildu ziren urteurrena ospatzeko; Oihan Vegak gidatu zuen saioa eta Alberto Iñurategik hitzaldia eman zuen.

ELGETA

Iraitz Lazkano Elgetako alkatea

Urriaren 5ean Getarian egindako batzar orokorrean, Elgetako alkate Iraitz Lazkano izendatu zuten Uemako lehendakari. Indartsu dagoen erakundea dela esan zuen hark.



OÑATI

Felix Ibarrodo Konpositorea

Urriaren 16an Espainiako Musika Sari Nazionalen konposizio atalean saritu zuten oñatiarra. Azken urteetan musikaren alorrean egindako lana saritu zuten epaimahaia.



LEINTZ GATZAGA

Txinako teknikariak auzo-konposta ezagutzen

Hondakinen kudeaketa ezagutzeko eta euren egoerara egokitzeko, Leintz Gatzagako auzo-konpost gunea ikusten izan ziren urriaren 3an Txinako zenbait ordezkari. ISWA World Congress Bilbao 2019 kongresuaren baitan auzo-konpost gune ezberdinak bisitatu zituzten; tartean, Gatzagakoaren funtzionamendua ikusten izan ziren.

DEBAGOIENA

Adineko presoak askatzea eskatu zuten

Sarek antolatuta, ehun lagunek baino gehiagok egin zuten Elgoibar eta Oñati arteko bizikleta martxa, urriaren 27an. Preso adindunen egoera salatu nahi izan zuten, eta Elgoibarko Sebas Etxaniz eta Oñatiko Joseba Arregi askatzea eskatu zuten. 76 eta 73 urte dituzte, hurrenez hurren, eta 81 urte bete arteko kondenak dituzte.



DEBAGOIENA

'Erreferenduma ez da delitua' leloarekin elkarretaratze ugari

Kataluniako politikarien aurka-ko epaia salatzeke Debagoieneko herri gehienetan egin ziren elkarretaratze zatatsiak, sindikatuek egindako deiari erantzunez. Ehunka herritar batu ziren, eta ikasleek geldialdiak egin zituzten. Urriaren 19an Donostian egin zen manifestaziora ere joan ziren zenbait debagoiendar.



DEBAGOIENA

'Nomadak-El Trenico' ibilbidean bizikleta martxa egin zuten

Argazkiko artistak aritu ziren, urrian, Bergara eta Lizarra lotzen zituen antzinako Vasco-Navarro trenbidea artez janzten. Eta urriaren 26an, Bergaran hasi eta Eskoriatzaraino bizikletan joan ziren hainbat herritar; artisten lanak bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten, eta azalpenak ere jaso zituzten euren ahotik.



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibargai ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



ANTZUOLA**Unai Larrea** DH riderra

DH modalitateko jaitsieretan, mendiko bizikletan Euskadiko openeko 23 urtez azpiko txapelduna izan zen antzuolarra. Datorren denboraldia ia ziur azkena izango dela iragarri zuen.

**BERGARA/ARAMAIO****Eguren eta Galartaren lanak gogoan**

Moises Eguren margolari bergararraren lanak bildu ostean, ikusgai jarri zituzten Aroztegi aretoan. Julio Galarta Arrasateko pintorearen obrak ere bildu zituzten, eta erakusketan jarri Aramaio Sastiñan.

ANTZUOLA**Eraso matxistak salatu zituzten**

Udan Antzuolan egondako eraso matxistak salatzeke elkarretaratzea egin zuten urriaren 3an, *Guk sinisten zaituztegu!* leloarekin, eta erasoak jaso zituzten emakumeei babes osoa helarazi zieten.

BERGARA**Wolframaren gaineko jardunaldia**

Urriaren 1ean, Passion For Wolframium jardunaldia ospatu zuten Bergaran. Dudley Herschbach fisikari-kimikari estatubatuarra eta Maria Vallet-Regi ikertzaile espainiarrak hitzaldia eskaini zuten Seminarixoa.

**ARETXABALETA****Gizonezko bat hil zen Aretxabaletan izan zen auto istripuan**

Urriaren 20an bi autok elkar jo zuten Aretxabaletako saihesbidean, eta ondorioz auto bateko gidaria, 64 urteko gizon azkoitiarra, lekuan bertan hil zen. Lau pertsona ere zauritu ziren ezbeharrean: hildako gizonarekin zihoan emakumezkoa, eta beste autoan zihoazen familia bereko hiru; gurasoak eta haien alaba.

**ARRASATE****Goikobaluren 30. urteurrena ospatu zuten**

Goikobalu abesbatzaren sorreratik 30 urte pasa direla ospatu zuten urriaren 19an, San Frantzisko elizan. Beste batzuen artean, Mozart-en *Requiem* kanta abestu zuten. Abesbatzaren sortzaile izandako Jesus Mari Arce zendu zen aste berean, eta hura gogoratzeko baliatu zuten hitzordua: bera gogoan edukita ozen abestu zuten kantariak,

**ARRASATE****Horazio Argarateri agur beroa egin zioten**

Arrasateko parroko lez azken meza esan zuen Horazio Argaratek –argazkian, ezkerrean– urriaren 6an, San Juan Bataiatzailearen parrokian, eta haren lekukoa hartu zuen Victoriano Etxabek –argazkian, eskuinean–. Parrokia goraino bete zen egun hartan, bati agur beroa egin zioten herritarrek; eta besteari, aldiz, ongietorria.

BERGARA**Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga izan ziren dantzari onenak**

Murgiondok eta Galarragak osatutako bikote bergararrak Euskal Herriko Dantza Txapelketa irabazi zuen urriaren 25ean. Seguraz jokatu zen txapelketa, eta parte hartzen zuten laugarren aldian izan zen. Moises Azpiazu dantza taldeko harrobikoak biak, irailean 34. Dantza Suelto Txapelketa irabazi zuten Bergaran.

**ESKORIATZA****10. urteurrena ospatu zuten Eskoriatzako Berbalagunak taldeak**

Urriaren 3an, Zaldibar antzokian ospatu zuten urteurrena, *10 Berba, 11 lagun* lelopean. Urte horietan izandako koordinatzaileak, berbalagunak eta bidelagunak batu ziren egitasmoaren esperientziak partekatzeko. Egindako ekintzen errepasoak egin zuten eta egunerako prestatutako ikus-entzunezkoa ikusi zuten azkenik.



UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Ondo pasa Gabon iaiaak!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

ARRSATE

Goikobalu Txikik 25 urte bete zituen

Mende laurdena ospatzeko, kontzertu berezia eskaini zuten Kulturateko klaustroan azaroaren 16an. Goikobalu Txiki omentzeko, garai bateko eta egungo kideak batera aritu ziren, publikoaren gozagai.

DEBAGOIENA

EH Bildu garaile Debagoienean

EH Bildu izan zen garaile Debagoienean eta handitu egin zuen jeltzaleekiko aldea, ia lau puntu. Jeltzaleek, sozialistek eta Elkarrekin Podemosek behera egin zuten, baita Ciudadanosek ere.

OÑATI

Eneko Barberena idazlea

Eneko Barberenak *Afrikanerrak* liburua aurkeztu zuen. Etorkizun distopiko batean kokatua, Eneko Barberenaren beraren esanetan indiferentzien inguruko lan bat da.



BERGARA

Zaldia garaile Aristirekin desafioan

Zaldia txirrindularia baino azkarragoa izan zen azaroaren 30ean Berriatua, 330 metroko esprintean. Mikel Aristi txirrindulari bergararrari segundoa atera zion helmugan *Lanbro* zaldiak.



ARRASATE

Mundukidek 20. urteurrena ospatu zuen


Mundukide Fundazioa 1999an sortu zen, "interkooperazioa, elkartasuna eta gizarte eraldaketa oinarri hartuta"; azaroaren 7an egin zuten urteurreneko ekitaldi nagusia, Ane Irazabal kazetariak zuzenduta, sortzaile, bazkide, boluntario, kooperante ohi, eta abarrekin.



BERGARA

Fagor Ederlan eta Miguel Altuna, inauguratuta

Lehendakariak inauguratu zuen ofizialki Fagor Ederlanen Bergarako lantegia, ekitaldi instituzional batekin, eta 2016an abiatutako prozesua bukatuta geratu zen hala; egun, 220 langile ditu. Miguel Altuna Lanbide Heziketa Eskola berrian ere izan zen Urkullu lehendakaria, Uriarte Hezkuntza sailburuarekin batera.



LEINTZ GATZAGA

Udal hauteskundeak eta udalbatza berria

Azaroaren 10ean egin zituzten Leintz Gatzaga udal hauteskundeak eta bertan erabaki zuten udalbatza berria: alkatea Eugenio Otsoa izango zen, eta hauek izan ziren gainerako udal ordezkariak: Ogasuneko zinegotzia Garazi Orobengoa, Mendikoa Juanito Bengoa, Kulturakoa Beñat Agirreurreta; eta Hirigintzakoa Jon Sasiain.

DEBAGOIENA

Indarkeria matxistaren kontrako agerraldi ugari

Indarkeria Matxistaren Aurka-ko Nazioarteko Egunaren harira, mugimendu feministak ekin-tza eta mobilizazio desberdinak egin zituen bailarako herri guztietan azaroaren 25ean, Leintz Gatzagan izan ezik. Irudian Arrasateko deialdia, *Urratzen gaituzten sasi guztien gainean, saretu!* lelopean.



BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 pk
20500 Arrasate

urte berri on!



Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com

OÑATI

Laura Mendizabal Enpresaria
Iñigo Urkulluk eman zion Korta saria Laura Mendizabal Arkauz enpresari oñatiarrari, azaroaren 19an, Gasteizen, Lehendakaritza egin zuten ekitaldian.

**OÑATI****Ganbara abesbatza Argentinan**

25. urteurrenaren baitan, ekintza eta kontzertu ugari egin zituen Ganbara Abesbatzak. Urteurrena ospatzeko asmoz, Argentinara egin zuten bidaia abesbatzako zuzendari eta kide batzuek.

BERGARA

Mikel Linazisoro Eskalatzailea
Mikel Linazisorok Espainiako Txapelketa irabazi zuen, *overall* formatuan. Euskal Selektzioak hamar domina lortu zituen maila ezberdinetan; horietako hiru, Linazisoro bergararrak.

**ANTZUOLA****Mendizabalen azken partidua Aspen**

Hunkituta baina irribarreari eutsiz esan zion agur profesional bizitzari Aitor Mendizabal pilotariak. Rezusta, Irribarria eta Altuna lagunak izan zituen alboan. Antzuolatik bi autobus joan ziren Eibarrera babesa ematera.

**ANTZUOLA****Larriki gaixo dauden presoak askatzeko manifestazioa**

Debagoieneko Sarek deitutako manifestazioarekin –*Larriki gaixo dauden presoak etxera! Eltzikorta etxera!* lelopean– 200 bat lagunek egin zuten bat azaroaren 30 iluntzean Antzuolan. Joseba Elozegi *Eltzikorta*-ren eta beste 20 euskal preso gaixoren egoera salatu gura izan zuten, eta haiek etxeratzeko dei egin.

**DEBAGOIENA****'Ttap'-ek irabazi zuen Rikardo Arregi Saria**


Eusko Jaurlaritzak eta Andoaingo Udalak 2019ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak banatu zituzten azaroaren 27an Andoaingo Bastero Kulturgunean, eta *Ttap* aldizkari digital multimedia jaso zuen Komunikazio Saileko saria. Kazetaritza saria, ostera, Kanal-dude telebistarendako izan zen.

**ARAMAIO****Arnasa Gara Aramaion eta Leintz Gatzagan**


Arnasa Gara aurkeztu zuten azaroaren 30ean Aramaion, euskararen arnaguneetako bat izendatu baitzuten Arabako herria. Hainbat herritarrek hartu zuten hitza euskararekin duten harremana azaltzeko eta elkarren berotasunarekin indarrak batzeko.

OÑATI**Atletismoko argazki onena, Felix Sanchez oñatiarrarena**

Atletismoko nazioarteko argazki onenaren saria irabazi zuen Felix Sanchez oñatiarrak, Shelly-Ann Fraser-Pryce korrikalariari Dohan ateratako argazkiari esker. Asteburuan Monakon egindako World Athletics galan jaso zuen saria. Bigarren urtez segidan irabazi du sari hori argazkilari oñatiarrak.

**DEBAGOIENA****Barrabiletako minbiziaren aurka, Movember**

Gizonen minbiziak, bereziki barrabiletako eta prostatako minbiziak sentsibilizatzea eta ikerketarako dirua batzea helburu duen Movember ekimenak urtetik urtera indar handiagoa du Debagoienean. Aurten, sekula baino bibote gehiago ikusi ziren kaleetan. Azaroko azken egunarekin batera moztu zituzten bibote horiek.



ELGETA

'Escamot catala' ekimena herrian

Abenduaren 6an hasita, Kataluniaren eta Euskal Herriaren arteko elkartruke ekimena egin zuten; dantzan oinarrituta, baina han bizi duten egoera dela-eta dimentsio politikoa ere izan zuen aurtan.

ARRASATE

Amaia goraino Cesar Bona entzuteko

Hezitzaile ezagunenetakoa den Cesar Bona Amaia antzokian izan zen abenduaren 11n, Goieskolak antolatutako jardunaldi pedagogikoen baitan, eta aretoa goraino bete zen hari entzuteko.

OÑATI

Markel irizar Txirrindulari ohia

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Kirolgala ekitaldian, abenduaren 5ean, Markel Irizar txirrindulari ohia omendu zuten. Kirolari Ohiaren saria eman ziten oñatiarrari.



DEBAGOIENA

Aita Menni eta Natra: elkarretaratzeak

Aita Menni Ospitaleko langileek eta Oñatiko Natrakoek elkarretaratzeak egin zituzten abenduan zehar. Lan eskubideak aldarrikatzeko, protestak eta lanuzteak egin zituzten lantokietan.



DEBAGOIENA

Luiziek arazo ugari eragin zituzten

Abenduaren 13 goizaldean botatako euriek hainbat lur-jausi eragin zituzten. Aparkatuta zeuden atzeko pareta behera etorrita Arrasaten, bost autobus kaltetu ziren; Elgetan, Eibarre-ra doan errepidea moztuta egon zen hainbat egunez; eta Oñatin, Elorregirako errepidea moztu egin behar izan zuten.



BERGARA

'Serafin Esnaolaren begirada', zinemara

On Serafin Esnaola apaizak *super 8* kamerarekin hartutako irudiak oinarri hartuta, Asier Altuna *Kixi*, Migel Angel Elkoroberezibar eta Aitor Alberdi bergararrek elkarlanean sortu zuten *Serafin Esnaolaren begirada* filma; 35 minutu irauten du eta protagonistak 1965-1985eko Bergara eta bergararrak dira.



OÑATI

Uribarri auzoko errezetak, liburuan jasota

Lapiko artian izena du Anton Azpiazuk bultzatuta eta Artixa elkartearen eskutik abenduaren 15ean osoko bilkuren aretoan aurkeztu zuten liburuak. Oñatiko Uribarri auzoko kontuak jaso eta sukaldeko errezeta zaharrak batzen zituzten lau emakumeren liburutxoak argitaratu zituen Artixak.

ARRASATE

Herriko emakume musulmanek, egoitza berria

Emakume musulmanak euskal gizartean integratzeko helburua duen INME elkarteak egoitza berria inauguratu zuen San Andres auzoan. Zazpi urte daroatza lanean, kanpotik etorritako emakumeak ikusgai jartzeko proiektuak garatzen. Djamila Zereiby presidentea pozik azaldu zen egoitza berriarekin.



*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.
Zorionak eta urte berri on!*

ARRASATE**Ratoi Radu** Akordeoi-jolea

Ratoi Radu Moldaviarrak Arrasate Hiria nazioarteko lehen postua eraman zuen abenduaren 6tik 8ra Amaia antzokian egin zuten akordeoi lehiaketan baitan.

**ARETXABAETA****Errefuxiatuentzako kanpaina UDAk**

Lesbos-en bizi diren errefuxiatuen egoeraren berri herritarrei emateko eta, era berean, haiendako laguntza jasotzeko kanpaina abiarazi zuen abenduaren 16an UDAk, Zaporeak elkartarekin batera.

ELGETA**Javier Leanizbarrutia**

"Mesedetxo bat eskatu eta beti egiteko prest dagoelako", oroigarriak jaso zituen omenduak abenduaren 15ean. Semeak aureskua eskaini zion.

**DEBAGOIENA****Hainbat ekimen Euskararen Egunean**

Bailarako herri ezberdinetan egin zituzten abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekintzak. Hainbat herritan, datorren urtean egingo den bigarren Euskaraldia aurkezteko baliatu zuten eguna.

**OÑATI****Ingo Xonau! egitasmoa aurkeztu zuten**

Oñatiko nokaren osasuna nolakoa den aztertu zuten Ingo Xonau! proiektuaren baitan. Otsailean hasi ziren lanean eta geroztik 54 herritar elkarrizketatu dituzte. 55 urtetik beherako emakumezkoen artean gutxiak dakitela ondorioztatu zuten; hala ere, oraindik bizirik dagoela nabarmendu zuten abenduaren 14ko aurkezpenean.

**DEBAGOIENA****'Zilarrezko A' kalitate ziurtagiria jaso zuen Goienak**

Abenduaren 18an jaso zuen Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak *Zilarrezko A* kudeaketa aurreratuaren saria. Hain zuzen ere, Iban Arantzabal Goienako zuzendariak Estibaliz Hernaezen eskutik jaso zuen aitortza. Goiena da orain arte sari hau jaso duen lehenengo hedabidea.

**ARETXABAETA****Automozioko emakume ikasleen I. topaketa**

Euskadiko Lanbide Heziketa zentroetako 50 bat pertsonak parte hartu zuten Aretxabaletan lehenengoz egin zuten automozioko emakumeen topaketan. Esperientziak partekatu, elkar ezagutu eta automozioko ekintza ludiko batean parte hartzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek.

LEINTZ GATZAGA**Eugenio Otsoak alkate kargua hartu zuen abenduaren 7an**

Sei hilabeteren ostean, abenduaren 7an eratu zuten udalbatza Ekitaldi labur batean hartu zuten kargua udal ordezkariak: Eugenio Otsoa, alkate; Garazi Orobengoa, Ogasun zinegotzi; Juanito Bengoa, Mendietako zinegotzi; Beñat Agirreurreta, Kultura zinegotzi; eta Jon Sasiain, Hirigintza zinegotzi.

**OÑATI****Etorkizuneko Oñati irudikatu zuten azken bost alkateek**

Etorkizuneko Oñati herritarrek eta ingurumena zainduko dituen herria izatea gurako lukete azken bost alkateek. Hain zuzen ere, Anjel Iturbe, Andoni Gartzia, Lourdes Idoiaga, Mikel Biain eta Izaro Elorza izan ziren etorkizunari buruzko mahai inguruan, *Kontzejupetik* aldizkariaren eskutik.

• **Ibargarai 24**

Tel.: 943 76 70 29

• **Super Amaran ere bai:****San Lorentzo pol. 9****Amillaga 18**

Tel.: 943 76 99 34

BERGARA**Zorionak eta urte berri on!**

Izaskun Arriaran

Migratzaileen dramaren lekuko

Gaur egun Mendebaldeak bizi duen drama handienetako bat arintzen laguntzeko egin da ezagun Izaskun Arriaran erizain aramaioarra 2019an.

Aita Mari itsasontzian boluntario lanetan aritu da Arriaran, Mediterraneo itsasoan itotzeko arrisku larrian diren migratzaileak erreskatatzeko eta artatzeko. Azaro erdialdean egoera oso zail bati aurre egin behar izan zioten: Italiako uretan Libiako 78 migratzaile erreskatatu ostean, bost egun egin behar izan zituzten *Aita Mari* itsasontzian, Sizilian porturatzeko baimena lortu aurretik.

Fisikoki gaizki, eta psikologikoki okerrago Migratzaile horiek salbatzea eta porturatzea lortu bazuten ere, erreskatatu zituztenean Arriaranek ez ditu sekula horren aurpegi tristeak ikusi: "Psikologikoki nola dauden ikustea izugarria izan da". Libiatik ihesi zihoazen migratzaile horiek: "Libiarrak ez ginela ikusita, poz handiz hartu gintuzten".



Aitor Arregi

Lubakitik, arrakasta infinitura

Zinemaldian sei sari jaso eta Donostiatik "indartuta" irten ostean, urriaren 31n estreinatu zuten *La trinchera infinita* filma, baita oso harrera onarekin estreinatu ere. Aitor Arregi (Oñati, 1977) zuzendari eta gidoigilea, Jon Garañorekin eta Jose Mari Goenagarekin batera, euskal zinemaren erreferente ukazina da dagoeneko. *Loreak*-en eta *Handia*-ren arrakastaren ostean, hamabost izendapen lortu dituzte Moriarti Produksioak-ekoek urtarrilaren 25ean banatuko diren Goya sarietarako; tartean, pelikula, zuzendari eta gidoi original onenaren izendapenak. Goyen aurretik ere izango dute beste sari esanguratsu batzuk jasotzeko aukera, urtarrilaren 11n banatuko diren Forque sarietan eta urtarrilaren 16an banatuko diren Feroz sarietan faborito dira eta.

Etxebestetarren agurra, Asier Altuna 'Kixi'-ren eta Telmo Esnalen zuzendaritzapean Etxebestetarrak itzuli dira zinemara 2019an, Asier Altuna *Kixi*-k (Bergara, 1969) eta Telmo Esnalek *Agur, Etxebeste!* estreinatu zuten-eta Donostia Zinemaldian.



Hamasei urtez ziklismoaren tropel gorenean egon ostean, abuztuaren 3an hartu zuen erretiroa Markel Irizarrek (Oñati, 1980). Proba "ezin aproposagoa" aukeratu zuen agur esateko: Donostia klasikoa. Omenaldi beroak jaso zituen, lehendabizi Donostian eta ondoren jaioterrian. Irizarren izena ez da handienetako bat izango ziklismoaren historian lorpenei dagokienez, baina ez dago zalantzarik arrastoa utzi duela tropelean. Urte onenak Fabian Cancellararentzat lanean aritu zirenekoak izan ziren Irizarrentzat, eta mailarik altuenean lehiatzeko gai izan da beti. Agurtu da tropeleko *bizipoz*, baina ziur bere irribarrearen lekuko izango dela Debagoiena aurrerantzean ere.

Beste agur bat ate joka: Vanesa Gimbert
Espainiako futbol ligako jokalaria beterranoena den Vanesa Gimbert (Bergara, 1980) "laster" erretiratuko da: "Garbi daukat gero eta gertuago dagoela eguna".

Markel Irizar

Tropeleko bizipozaren erretiroa



Eduardo Zubiaurre

Enpresarien ordezkari, berriz

Uztailaren 17an hartu zuen Confebask-eko presidente kargua Elgetan bizi den Eduardo Zubiaurrek (Eibar, 1962). 2006 eta 2012. urteen artean Adegiko buru ere izan zen Zubiaurre, eta, beraz, badu eskarmentua euskal enpresarien interesak babesteko erakundeak zuzentzen. Dioenez, "agerikoa" da mundu mailako ekonomiaren hazkundea moteldu egin dela; eta euskal ekonomiarentzat "oso garrantzitsua" den autogintzaren sektorean igarri da hori dagoeneko. Beste arazo bat da, Zubiaurreren ustez, langile kualifikatu gutxi daudela industrian gertatzen ari diren aldaketei erantzuteko: "Gazteen erabaki akademikoak ez datoz bat enpresen eskariekin. Hor arazo handia dugu".

Urtarrilaren 30eko greba orokorrerako "arrazoi objektiborik ez"

Greba orokorrerako "arrazoi objektiborik ez" dagoela uste du Zubiaurrek: "Inguruko langabezia tasarik txikiena, soldatarik handienak... Txarto pasatzen ari den jendearentzat ekimenak behar dira, baina greba orokorra ez da irtenbidea".

GOIZPERREK
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE GUZTIOI

URTE BERRI ON!

-2020-

 **Goizper Group**
Elkarlanean garatzen

Ihiztadura · Industrialia · Bioteknologia

Hauteskundeak izan dira 2019ko protagonista nagusiak. Izan ere, Debagoieneko herritarrek hiru alditan joan dira botoa ematera. Guztira, zazpi boto emateko aukera izan dute herritarrek: Espainiako Kongresu eta Senaturako, bi alditan, Europako Parlamenturako, Gipuzkoako Foru Aldundirako eta udaletarako.

Gipuzkoako Foru Aldundian ez da aldaketa handirik izan, eta Markel Olanok jarraitzen du diputatunagusi, EAJk boto gehien eskuratu ostean.

Debagoienean gertatu dira aldaketak. Aipagarriena Bergaran izan da, EH Bilduk gehiengoa eskuratu zuelako eta orain Gorka Artola delako alkatea. Oñatin Mikel Biainen lekukoa Izaro Elortzak (EH Bildu) hartu du, eta beste herrietan ez da aldaketarik izan, indar bozkatuenek eta alkateek aurreko agintaldikoak izaten jarraitzen dutelako.

Leintz Gatzagan izan da bitxikeria. Maiatzeko hauteskundetara ez zen zerrendarik aurkeztu, eta azarora atzeratu zituzten. Eugenio Otsoak hartu du Juani to Bengoaren testigua.

Espainiako hauteskundeak

Apirilaren 28an, Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak egin ziren eta PSOE nagusitu zen, 123 parlamentari lortuta. Gainera, Vox alderdi ultraeskuindarra 24 eserlekurekin estreinatu zen Kongresuan. Hala ere, sozialistek ez zuten Podemosekin akordiorik lortu eta beste hauteskunde batzuk deitu zituzten. Azaroaren 10ean, PSOE gailendu zen berriro, 120 eserlekurekin, baina Voxek eta PPK gorakada nabarmena izan zuten. Santiago Abascal en eskuin muturreko alderdiak 52 parlamentari ditu

2019. urtea, hauteskundeen zurrumbiloan

Udal, Foru Aldundi, Espainiako Gorte eta Europako Parlamentua kontuan hartuta, debagoiendar bakoitzak zazpi boto ezberdin emateko aukera izan du 2019an. Gainera, klima aldaketa eta kale-protestak ere erdigunean izan dira / **Josu Bilbao**

gaur egun. Euskal alderdiei dagokienez, EAJk 6 ordezkari eta EH Bilduk 5 eskuratu zituzten azken hauteskundetan.

48 ordu ere ez zuten itxaron PSOEek eta Podemosek azken hauteskundeen ostean akordioa sinatzeko. Hala ere, bien arteko batura ez da nahikoa eta Kataluniako eta Euskal Herriko alderdiek zer esana izango dute inbestidura lortzeko.

Iñaki Galdos oñatiarrak dio hauteskundeen urtea izan dela: "Zerbait izatekotan, hauteskunde urtea izan da gurean. Baina urtea bukatzeaz, oraindik ez dakigu zein den hauteskunde gehien azken fruitua. Espai-

KLIMA ALDAKETAREN ARAZOA ERDIGUNERA ETORRI DA GRETA THUNBERG GAZTEAREN ESKUTIK

niako presidentea aukeratu ezinik dabilta oraindik. Hauteskundeak berriz deituta oztoporik gabeko bidea ikusten zuena ikaraz dago orain, ausarkeriaz egindako urratsagatik, damututa ziurrenik. Europarretan ere baldar jokatu dutela jabetuko dira batzuk, agian, Kataluniako independentistak euren aulkietan ikusteaz gain, Europako auzitegiak jipoia eman ondoren gerta daitekeelako hori. Zigor bikoitza, beraz. Nafarroan bai, osatu da gobernu, baina ikustear dago zer emango duen agintaldiak. Bada maiatzekoa jipoi handitza hartu zuenik, baina baita gerora begira aukera izan daitekeela dioenik ere. Erkidegoko lurraldeetan dena lasai ordea. Herri batzuetan izandako aldaketak salbu, gauzak antzera. Ez dirudi datorren urterakoetara begira panorama askorik aldatuko denik. Barealdiak beharrezkoak izaten dira sarri... neurri batean".

Klima aldaketa, erdigunean

Ikasleak, Greta Thunberg norvegiarra buru dutela, kalera irten dira 2019an, klima aldaketaren arazoaren aurrean oihu egiteko. Udan, gainera, Amazonas oihanean izan ziren suteek arazoa hedabideetako lehen lerrora ekarri zuten.

Horixe bera azpimarratu du Elena Laka abokatuak 2019ko gertakari gisa: "Klima aldaketaren arazoaren gaineko jabetakuntza aipatuko nuke. Ez da 2019a arazoa sortu deneko urtea, baina bai, maila globalean, gobernu, erakunde pribatu eta norbanakoen mailan guztiok arazoak jabetu garen urtea. Gre-

DEBAGOIENKO BI PROIEKTU SOLIDARIO IZAN DIRA AFRIKAKO ERREALITATEA EZAGUTZEN UDAN

ta Thunberg nerabea, bere argi-lunekin, ezagutu dugun urtea izan da, eta berarekin mundu osoan milaka gaztek ingurumenaz arduratzeko exijitu duten urtea. Mugimendu honek sortutako jabetakuntzak inflexio puntu bat ezarri du; ez du arazoa konponduko, baina inor gehiagok ezingo dio izkin egin. Hurrengo urteetan politika guztietan nabarmenki –behintzat, nominalki bada ere– txertatuko den lerroa izango da. 2019. urteaz geroztik, guztiok sentituko gara interpelatuak klima aldaketaren inguruan, eta inork ezingo du esan erantzukizunik ez duenik".

Gainera, klima aldaketarekin eta gizarte eraldaketarekin lotura zuzena duen D-2030 ekimena ere ipini dute martxan aurrean. Debagoieneko erronkei lankidetzatik erantzuteko proiektua da hori. 2020ra begira, ekimenaren helburua da erronka horiei erantzungo dieten proiektuak martxan jartzen hasia.

Ezberdintasunak gizartearen gora

Elena Lakak aipatu du, gainera, "2019ko joera" izan dela "pertsonen arteko desberdintasunak handitzea. Joera moduan, eta aurrera doana da, gure gizartearen barruko desberdintasuna. Ezin esan, zoritxarrez, gailurra jo duela, zeren datorren urtean ere gertatuko da gero eta langile gehiago direla pobreak, ezin dituztela, nahiz eta lan egin, bizitzeko gutxieneko baldintzak eskuratu euren soldatatik, eta gero eta jende gehiago dagoela baztertze arriskuan".

Hego Amerika, aztoratuta

Gobernuen aurkako aldarrietan herritarrek –eta herri indigenak, batez ere– kaleak bete dituzte. Hala gertatu zen Perun, Kolon-

**GOIKOETXE
HARATEGIA**



Salbador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

ZORIONAK
eta urte berri on !



Herritar bat botoa ematen, Bergarako pilotalekuan.



Ndank Ndank elkartearen eskutik Senegalgo proiektu solidarioak ezagutu zituzten hainbat debagoiendarrek.

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Hauteskundeak

Apirilean, maiatzean eta azaroan bozkatzeko aukera izan zuten herritarrek.

Klima aldaketa

Ikasleen grebak eta Amazonasko sarraskiak erdigunera ekarri du gaia.

Francoren gorpua

Erorien Haranetik atera eta Mingorubioko hilerria eraman zuten.

Antzuolako alardea

Lehen aldiz emakume bat izan da Mairuaren Alardeko kapitaina.

D-2030

Trantsizio justua helburu Debagoieneko eragile ezberdinak batzen dituen ekimena sortu da.

'Ttap' aldizkaria

Rikardo Arregi Komunikazio Saria jaso du Goiena kide den aldizkari digital multimedialak.

Elkartasun proiektuak

Hainbat debagoiendarrek Senegalgo eta Mozambikeko proiektuak ezagutu dituzte udan.

'Humanity at music'

Mondragon Taldeak "sinfonia kooperatiboa" antolatu du.

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

Eskerrik asko urte hauetan guztietan ondoan egoteagatik!

Zorionak eta urte berri on!





Greta Thunberg, klima aldaketaren aurkako ikasleen manifestazio batean.

bian, Brasilen eta Ekuadorren, eta hainbat herrialdetan gobernuak erreformetan atzerapausoa ematea lortu zuten protesten bidez. Txilen, bestalde, gobernuaren eta Pinera presidentearen aurkako protestekin bete dira kaleak, eta manifestazioen ondorioz dozenaka hildako izan dira.

Gainera, Bolivian, Evo Morales presidentearen aurkako estatu kolpea eman dute indar kontserbadoreek militarren babesarekin, herrialdea egoera ezegonkorrean lagata.

Francoren gorpua

Zalaparta galanta sortu zuen diktadorearen gorpua leku-aldatzeak. Hilabeteak gorpua-ekin zer egin, nora eraman eta zer-nolako zeremonia egin erabakitzen egon ostean, jarduneko Gobernuak Erorien Haranetik atera eta Mingorrubioko hilerria eramatea erabaki zuen urrian. Leku-aldatzeak haserrea eragin zuen gizarteko hainbat sektoretan, haien esanetan "ohoreekin" eta "estatuko hileta gisa" egin zutelako eta diktadoreari "gorespina" egin zitziolako.

Emakumeak Alardean

Antzuolako Mairuaren Alardeak lehen emakume kapitaina izan du aurtien. Izan ere, Edurne Iturbek Jose Angel Arbulu ordezkatu du Alardeko kapitain lanetan. Lehen aldiz, Alardeko partaide garrantzitsuenetako bat emakumezkoa izan da 2019an.

Debagoienetik Afrikara

Bi proiektu solidario gertutik ezagutzeko aukera izan zuten udan hainbat debagoiendarrek. Ndank Ndank Bergarako elkar-tearen eskutik Senegalgo Diounewar-en izan ziren berrogei debagoiendar inguru. Gainera, Mundukidek Mozambiken dituen proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten Debagoienetik abiatu ziren hainbat kidek. Aipatu behar da, gainera, Mundukidek 20 urte bete dituela 2019 honetan.

POLEMIKA HANDIA SORTUTA, ERORIEN HARANETIK ATERA ZUTEN FRANCOREN GORPUA URRIAN

Rikardo Arregi Saria

Ttap aldizkari digitalak irabazi du Rikardo Arregi Komunikazio Saria. Goienak beste tokiko hedabide batzuekin batera sorturiko aldizkaria aukeratu zuen epaimahaiak. Kazetaritza saria, bestalde, Kanaldudek irabazi zuen *Hurbiletik* saioagatik.

Apaiz aldaketa bailaran

Horazio Argaratek Arrasateko parroko izateari utzi eta Oñatiko parroko izendatu dute. Joxean Larrañagak –aurreko Oñatiko parrokoa– erretiroa eskatu zuen gaixotasunagatik, eta apaiz aldaketak zalaparta sortu zuen, Arrasateko kristau komunitateak Argaratek jarraitzea nahi zuelako.

'Humanity at music'

Musika, dantza eta sorkuntza literarioa esperientzia kooperatiboarekin uztartu zituen Mondragon Taldeak "sinfonia kooperatibo batean". Herririk herri emanaldiak egin ostean, Buesa Arenan egin zen ekitaldi erraldoia izan zen azken emaitza. Ekitaldian 1.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzereka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@cnv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

*Lorionak eta
urte berri on!*

Iragarria jami nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zentekara.



Teknologia aurreratua Debagoieneko enpresetan.

Dezelerazioa bai; atzeraldirik, berriz, ez

Dezelerazioa, Hego Euskal Herriko BPGren hazkundera, erronka teknologikoa eta digitala, klima aldaketaren gaineko kontzientziakzioa, nazioarteko ziurgabetasuna eta 'brexit'-a dira urteak utzi dituen goiburu nagusietako batzuk / **Miren Arregi**

Dezelerazioa da aurten ekonomiak utzi duen goiburu nagusia. Nazioarteko Mundu Funtsaren eta Mundu Bankuaren arabera, urduritasun geopolitiko eta merkataritzaren eragindako dezelerazio –ez krisi– global batean sartuta gaude. Eragile batzuek beste bi arazo egiturazko gehitzen dizkiete aurrekoei: digitalizazioa eta klima aldaketa. Horien guztien eraginez, munduko ekonomia aurreko urteetan baino motelago haziko da, eta, okerre dena, hainbat lurraldetan politika ekonomiko eraginkorrak pizteko ahalmena oso murriztua izango da, gehienbat, iristen ari diren zorpetze maila handia dela eta.

BPGk, bilakaera positiboa

Dena den, eta dezelerazioa izan arren, ez da atzeraldirik gertatu Euskal Herriaren kasuan, eta, oraindik ere, bai Euskal Auto-

nomia Erkidegoak eta bai Nafarroak ere ekonomiaren bilakaera positiboa dutela esan daiteke. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak –Barne Produktu Gordina– %2,1 egin du gora 2019ko azken hiruhilekoan, uztailen aurreikusitakoa baino hamarren batzuk gutxiago. Nafarroari dagokionez, hazkundera %2,5ekoa izan da. Ekai Group-eko Errukane Aperribairen hitzetan, "ekonomiaren bilakaeraren alaketak ez dira aldi berean gautzen lurralde guztietan". Hala ere, haren ustez, nazioarteko egoerak okertzen jarraitzen badu, euskal ekonomia ere sufritzen hasiko da.

Eta zeri zor diogu BPGren hazkunde hori? Batez ere, eraikuntzaren eta zerbitzuen sektorearen hazkuntzari. "Eraikuntza eta zerbitzuak dira, batez ere, hazten ari diren sektoreak. Alegia, Euskal Herriko barne ekonomiarekin lotuta dauden esparruak. Gure hiritarrek jarraitzen dute kontsumitzen, eta, konfiantza galtzen ez duten bitartean, indartsu jarraituko dute sektore horiek", azpimarratu du Ekai Group-eko Errukane Aperribaik.

Enplegua, hazkunde-bidean

Egoera honetan, Euskal Herriko ekonomiaren hazkundera positiboa izan dela esan dugu, %2,1eko hazkundearekin. Nafarroan are hobeak izan dira datuak, %2,5eraino iritsi baita epe berean. Datu hauek garrantzitsuak dira, oraintsu arte uste baitzen %2tik behera ez zela enplegurik sortzen, baina lan merkatuan txertatutako malgutasunak eta munduko ekonomiaren paradigma berriak, digitalizazioa barne, zalantzan jarri dute muga hori. Gurean balekoa dela esan genezake, bai EAEn, bai Nafarroan

AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore Agirre Odontologoa ELK. Zenb. 162-A
Alaitz Agirre Odontologoa ELK. Zenb. 611-G

Ibargarai 32, behea BERGARA | agirrehortzclinika@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28

*Gabon
zeriontsuak
guztici!*

lan-tasak gutxitzeaz bat enplegua sortzea lortu delako. EAEn 2019ko azken hiruhileko datuak 2018ko amaierakoekin alderatuz gero 20.000 okupatu gehiago daude eta langabezia tasa %9,2an dago. Nafarroan, berriz, %8,19koa da langabezia tasa eta 5.600 gehiago dira okupatuak. Langabeak, berriz, 2018aren amaieran baino 5.700 gutxiago. Enpresagintza Fakultateko Lander Belokiren ustez, "lan merkatuko emaitzak onak dira lanpostuei dagokienez eta BPG %2 inguru horretan dabilen bitartean horrela izango da". Hala ere, KPI baxua izaten ari da eta Europako Banku Zentrala esku artean dituen tresna guztiak erabiliz ahalegin handiak egiten ari da ekonomia suspertzeko neurriak hartuz. Ekai Group-eko Errukane Aperribaik azaldu duenez, "hemen lasai gaude nazioarteko teknologia indartsu mantentzen den bitartean, baina, tamalez, aukera asko daude datorren urtea finantza leherketaren urtea izateko. Hori gertatzen bada, 2008tik 2012ra arte bizi izan genuen egoera berriro bizitzeko aukera guztiak ditugu". Aperribairen ustez, Euskal Herria ez dago prestatua egoera horri aurre egiteko; izan ere, "ez ditu une onak aprobetxatu etor daitekeen finantza krisi berriari aurre egiteko. Ez finantza egituren aldetik, ez aurrerapen teknologikoen aldetik ere".

Debagoiena, indartsu

Puntu honetan, Debagoiena litzateke salbuespena, Aperribairen usteetan: "Kooperatibak asko egiten ari dira epe luzera guretzat funtsezkoa den erronka teknologikoari aurre egiteko. Oro har, Euskal Herrian geroz eta motelago dabil inbertsio produktiboa,

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Dezelerazioa

Politikak eta merkataritzak eragindako dezelerazio global batean sartuta gaude.

Bilakaera positiboa

EAEn %2,1 egin du gora. Nafarroan, berriz, %2,5.

Zerbitzu sektorea

Zerbitzu sektorearen hazkuntza azpimarragarria ari da izaten 2019an.

Erronka teknologikoa

Kooperatibak lan handia egiten ari dira erronka teknologikoari aurre egiteko.

Debagoiena, indartsu

Bailarako enpresen bilakaera ona izan da, gainontzeko euskal enpresen parekoa.

Klima aldaketa

Klima aldaketarekin lotuta, kontzientziazioaren urtea izan da 2019a.

'Brexit'-ak eragin gutxi

Aurten izan duen eragina hutsala izan dela esan genezake.

Ziurgabetasuna

Nazioarteko merkatuetan ziurgabetasun eta urduritasun handia dago Trump hartzen dabilen erabakiak direla eta.



Harategian, saltzailea eta eroslea.

eta teknologikoa eta kooperatibak benetako salbuespena izaten ari dira arlo horretan. Gainera, Debagoienari dagokionez, urtearen gaineko zein irakurketa egingo luketen galdetuta, Beloki eta Aperribai bat datoz erantzunean: "Kooperatiben bilakaera gainerako euskal enpresen bilakaeraren nahiko parekoa da; gainera, kooperatibek euren proiektuak indartzeko pauso garrantzitsuak eman dituzte".

Soldatak eta arrakala

Bestetik, 2019ak ekarri duen datu esanguratsu bat lanbide arteko gutxieneko soldata berrikustearena izan da, %22,3 igo baita. Enplegu suntsitzailea izan behar zuela esaten zutenen aurrean badirudi ez duela horrelako eraginik izan, Espainian ere langabezia tasa jaitsi egin baita, nahiz eta ez izan gurean besteko pro-

portzioan. Urriko datuen arabera, %14,2koa zen batez bestekoa. Puntu honetan, emakumeen eta gizonezkoen arteko arrakalari dagokionez, Mondragon Unibertsitateko Lander Belokik uste du arazo bati aurre egiteko lehenen-

AUKERA ASKO DAUDE DATORREN URTEA FINANTZA LEHERKETAREN URTEA IZATEKO

KOOPERATIBEK EUREN PROIEKTUAK INDARTZEKO PAUSO GARRANTZITSUAK EMAN DITUZTE

go egitekoa arazoa azaleratzea dela. "Horretan pausoak eman dira, baina ez da nahikoa, noski. Neurri gehiago hartu behar dira, maila guztietan: legedian, esparru pribatuan, gizartea kontzientziazatzen, lana eta familia uztartzeko erraztasunetan... Lan horren emaitzak epe ertain-luzera ikusiko dira".

Hazkunde txikiena, nazioartean

Nazioartera eginda, hazkunde tasa %3 inguruan kokatzen du Nazioarteko Mundu Funtsak bere azken txostenean, 2008-2009tik izan den txikiena. Gure ingurunera etorrira, eta OCDE-ren aurreikuspenei erreparatuz gero, atzeraldia nabarmenagoa izango da herrialde ekonomikoki indartsuenetan, hala nola Alemanian %0,5, Erresuma Batuan %1 eta Italian %0. Txinan, aldiz, beherako joeran izan

autopullmans
Araba



Ondo pasa Gabon jaiak!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

arren, %6,1eko hazkundera aurikosten dute.

Ziurgabetasuna

Gainera, ziurgabetasuna eta urduritasuna handia da AEBetan bereziki eta hango presidente Trump hartzen ari den aldeabakarreko erabaki komertzial babesleekin eta erantzun bezala beste lurralde batzuek hartzen dituztenekin. "Ziurgabetasun handia dago ekonomian eta merkaturatuetan. Txinaren, AEBen eta Europar Batasunaren arteko gerra komertzialak alarma guztiak piztu zituen, baina badirudi baretu egin dela eta datorren urtera begira ez duela eragin hain negatiboa izango", dio Belokik. Europar bada ziurgabetasun foku gehigarri bat, eta Euskal Herrian bereziki, Britainia Handiarekin dituen harreman komertzialengatik; Adostasunik gabeko *brexite*-az ari gara. Aurten izan duen eragina hutsala izan dela esan genezake, baina "eragin handia izan dezake epe laburrean", Lander Belokiren ustez. Izan ere, kontuan hartu behar da "EAEko esportazioen %7 doala Erresuma Batura; batez ere, in-



Eguzki plakak teilatuan.

dustria sektoreari dagokiona. Irteera baldintzak zorrotzak badira, azkenean, kalte handia egin dakioke *brexite*-ak euskal ekonomiarri". Bestetik, krisiari aurre egiteko mendebaldearen azken estrategiaren porrota ere nabarmentzekoa da, Ekai Group-eko Errukane Aperribairen ustez: "Horren ondorioz, finantza-burbiularen gupil zoroan sartu gara berriro. Aldaketa politiko bat etorri arte ezinezkoa izango da Mendebaldeak behar dituen egiturazko aldaketak gauzatzea".

'BREXIT'-AK GURE EKONOMIAN AURTEN IZAN DUEN ERAGINA HUTSALA DA, BAINA HANDIA IZAN DAITEKE

ATZERRIKO KAPITALA EUSKAL ENPRESA ESTRATEGIKOAK HARTZEN ARI DA, ETA ALDERANTZIZ

Gertakari positibo bat azpimarratzekotan, Enpresagintza Fakultateko Lander Belokik klima aldaketaren inguruan nazioartean sortu den kontzientziarazioa nabarmendu du.

Atzerriko kapitala, gurera

Bestetik, atzerriko kapitala euskal enpresa estrategikoak hartzen ari da. Lehenengo, Gamesa hartu zuen Siemens; eta orain, Zegona funtsa bilakatu da Euskalteko bazkide nagusi. Horrek adierazten du, batetik, euskal enpresak interesgarri direla atzerriko kapitalarentzat, eta "hori bera berri ona da". Halere, Belokiren esanetan, "posizio hartze hauek arriskuak ere badituzte, erabaki-guneak atzerriar joan daitezkeelako". Ekonomia globalean murgilduta gauden honetan, "Euskal Herriak eduki dezakeen babesa enpresen jarduerarako lurralde erakargarria izaten jarraitzea da". Horretarako, ezinbestekoa da enpresen jardura sustatzeko eta babesteko politika publiko aktiboak edukitzea eta, bestetik, ezagutza eta berrikuntza maila handiko langileak izatea.

ekidegroup
pertsonak ardatz

zorionak eta urte berri on!

Ekide S.L. · Telleria Kalea 2, Arrasate · www.ekide.es · 943712543



Mendizabalek azaroan jokatu zuen, Eibarren, Asperekin azken norgehiagoka.



Markel Irizar, tropeletik tira egiten; Donostia Klasikoan esan zuen agur oñatiarrak.

lazko lepo beretik dator aurtengoa ere

Iaz Maialen Axpe, Kipchoge eta Jon Rhams nabarmendu zituzten EITBko kazetari Haritz Gallastegik eta Anartz Agirrek. Aurten, Rafa Mungia batu da errebasoko lana egitera, baina protagonistak ez dira horrenbeste aldatu. / **Xabier Urzelai**

Iaz nabarmendutako hiru kirolari horiek aurten albiste izaten jarraitu dute, bakoitza bere mailan. Hala, 2019ko kirol errebasoa egiteko, GOIENAK EITB taldeko Anartz Agirre, Haritz Gallastegi eta Rafa Mungia kazetariak izan ditu bidelagun, eta, Debagoieneko kirolariak nabarmentzerako orduan aukeraketa zabalagoa izan bada ere, fokua Euskal Herrira eta nazioartera zabaldutakoan bat egin dute hirurek.

Arrasate Dragoi, Axpe, Aristi...

Debagoien mailan aukeraketak askorako eman du. Hala, Realaren partiduak Euskadi Irratian kontatzen dituen Rafa Mungia arrasatearra hasi da: "Arrasate Dragoi Gimnasia Taldekoak nabarmenduko nituzke, eta, bereziki, gimnasia aerobikoa egiten dutenak. Aurten ere do-

minak ekarri dituzte Espainiako Txapelketatik, bai bakarka eta baita taldekako lanean ere. Gainera, baliteke aurki atzerri-rah lehiatzera joateko gonbidapena jasotzea; horrenbestez, sekulako meritua dute".

Euskal Telebistako kazetari Anartz Agirrek, berriz, goi mailako kirolari agur esan dioten bi debagoiendar izan ditu gogoan: "Markel Irizar eta Aitor Mendizabal nabarmendu nahi ditut. Gainera, esango nuke biek profil antzerakoa dutela. Akaso, euren ibilbide profesionalean ez dituzte garaipen mordoa batu, baina zaleen maitasuna eta errespetua irabazi dituzte, zaleek estiman dituzte, eta horrek, askotan, txapel batek baino baliog handiagoa izaten du".

Eta hori esatearekin batera, bergararra mendira begira jarri da: "Oihana Kortazarren itzule-

Gabon zoriotsuak guztioi!

ECHO

comercial BRUNET

Telleria 2, Labegaraieta, BERGARA.
943 76 31 52 • www.comercialbrunet.com



Jon Rham-ek 2019 amaiera ikusgarria egin du.



Realeko jokalariai, tartean Oihana Aldai, Granadan Erreginaren Kopa irabazi berritan.

ra nabarmenduko nuke. Bi urte lesionatuta egon eta gero gutxiak uste zuten garai bateko mailara bueltatuko zenik, eta Euskal Herri inguruko hamaika lasterketa irabaztearekin batera benetako lorpena Zegama-Aizkorrin euskal emakume onena izatea izan da. Mundu mailako lasterkari onenekin batera lehiatu da eta bosgarren sailkatu da; hor erakutsi du ze maila duen oraindik ere".

Eta, noski, ezin 2020an Olinpiar Jokoetan, Tokion, egoteko aukera duten debagoiendarrak alde batera utzi: "Mikel Linazisoro eta Maialen Axpe hor daukete aurten ere". Eta, hain zuzen, Axperen urtea azpimarratu du Euskadi Irratian Athleticceko partiduetan esatari lanetan jarduten duen Haritz Gallastegik: "Amets egiten jarraitzeko aukera ematen dion urtea egin du

arrasatearrak. Uste dut bere kirol ibilbidean azken urtean aurrerapausoa eman duela; handia, gainera". Izan ere, Espainiako Txapelketa irabaztearekin batera, pertikarekin 4,50 metro-tako saltoa eginda Axpe Glasgown lehiatu da 2019an.

Linazisorok, berriz, Espainiako Txapelketa irabazi du *overall* kategorian, eta gazte mailan hirugarren izan da Europakoan; baina, Tokiora sailkatzeko lehen aukerak ihes egin diote; apirilean izango du txartela lortzeko azken aukera erabakigarria.

**HARITZ GALLASTEGI:
"OIHANA KORTAZAR
ONDO ERREKUPERATU
DA; AURRERAPAUSSA
EMAN DU AXPEK"**

Gertukoenak ahaztu barik

Ibarrekoen errepasoa egitera-koan, baina, Gallastegik etxe-koetatik hasi gura izan du. Batetik, Anartz Agirrek aipatutako Oihana Kortazar nabarmendu du, eta, bestetik, futbol jokalaria bat: "Gutxitan iritsiko da elgetar bat futboleko zilarrezko kategoriara, eta Iñaki Olaortua Santanderko Racing taldean dugu jokatzeko. Iaz igo ziren mailaz, eta elgetarrak protagonismo handia izan zuen berdegunean, asko jokatu zuen eta. Orain, berriz, ez dabilta momentu gozoa pasatzen, entrenatzailea aldatu dute eta ez dabil horrenbeste jokatzeko".

Eta Elgetatik Bergarara jaitzita, kuadrilla bereko bi lagun nabarmenduta: "Mikel Aristi Muriasko ziklista eta Beñat Rezusta Aspeko pilotaria, eta biak kuadrilla berekoak. Bada, na-

barmentzeko moduko urtea egin dute biek. Batak bi lasterketa irabazi zituen abuztuan, Portugalgo Itzuliko etapa bat eta Limousingo Tourrean beste bat, eta horri esker profesionalismoan jarraitu ahal izango du Euskadi Fundazioaren barruan. Eta Rezustak, berriz, eskuz binakakoan txapela jantzi zuen Elezkanorekin batera".

Euskal Herrira saltoa

Bailaratik irtenda, Euskal Herri mailan Mungiak Realeko emakumezkoek egindako lorpena

**ANARTZ AGIRRE:
"JON RHAM MUNDU
MAILAKO GOLFEAN
EGITEN DABILENA
IZUGARRIA DA"**

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Axpe, Glasgowa

Espainiako Txapelketa irabazi, eta Europako sailkatu zen.

Fernandezen debuta

Aitor Fernandezek debuta egin zuen Lehenengo Mailan Levanterekin.

Emakume Master Cup-a

Maddalen Etxegaraik eta Uxue Osesek irabazi zuten finala, Zumarragan.

Rezustak, txapela

Elezkanorekin batera Eskuz Binakakoa irabazi zuen Bergarakoak.

Oihana Aldaik, Kopa

Aretxabaletako atezainak Realarekin Erreginaren Kopa irabazi zuen.

Ugarte, onena Italian

Aramaioko Aitor Ugartek gazte mailako Munduko Kopa irabazi zuen.

Markel Irizarren agurra

Oñatikoak Donostia Klasikoan eman zituen azken pedalkadak.

Aristik, bi garaipen

Portugalen eta Limousinen irabazi zuen bergararrak.

Linazisoro, 'overall'-ean

Espainiako eskalada txapelketa irabazi zuen bergararrak.

ibili

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

SINCE 1942

IBI MENAJE tel. + 34 943 763544, email: comercial@ibi.net, export@ibi.net, www.ibimenaje.com

azpimarratu du: "Kirol lorpenaz haragoko eragina izan duelako eta gizartean oihartzun handia izan duelako. Esango nuke mugarrria izan dela, eta etorkizunean berdintasunaren alde aurrerapauso handia. Emakumezkoen momentua iritsi da futbolera ere, eta olatu hau aprobetxatu beharra dago oinarritzkoak diren baldintzak lortzeko. Horrekin batera, uste dut komunikabideok oraindik asko dugula egiteko, baina guk ere eman ditugula aurrerapauso batzuk gai honen bueltan".

"Jon Rham gorenean dago"

Hala, Agirre eta Gallastegi bat datoz Realeko nesken Kopa garaipenak izan duen garrantzia-rekin. Eta, horrekin batera, biek errepikatu dute izen bera: Jon Rham. "Iaz ere aipatu genuen, baina kontua da aurten ere mundu mailako kirolari onenen artean ibili dela; ez diogu berak lortutakoari merezi duen erre-konozimendurik ematen. Akaso, izango da golfa ez dugulako horrenbeste jarraitzen... Batek daki, baina mundu mailan hiruugarren golf jokalaria onena da



Simone Bales gimnasta egiten dabilena inork ez du orain artean egin.

orain momentuan, eta kirol hori nazioartean jende askok jarraitzen du. Pentsa, bost milioi euro irabazi berri ditu Dubain". Eta Gallastegik jarraitu du Barrikako kirolaria nabarmentzen: "Gurean oso gutxitan ikusiko dugun kirolari horietakoa da. Duela hiru urtetik da profesionala, eta ordutik ez dago munduan berak baino torneo gehiago irabazi dituenik, hamar irabazi ditu, guztira. Eta 25 urte baino ez ditu!".

Horrekin batera, Agirrek beste kirolari batzuk ere gogoan izan ditu: "Batetik, hainbat piraguita nabarmenduko nituzke: Iñigo Peña, Ander Elozegi eta Maialen Chorrut. Hala, emakumezkoetan Euskal Herrian hainbat lagun ditugu lau Olinpiar Jokotan parte hartu dutenak: Almudena Cid gimnasta, Ainhoa Murua triatleta, Ainhoa Ibarra eskiazailea, Maialen Chorrut piraguita... Baina gizonetakoetan ez dugu halakorik, eta Tokioko

Jokoetarako sailkatuta, Ander Elozegi izango da lehenengoa. Kontua da Elozegiri Chorrutaren itzalean egotea egokitu zaiola, baina sekulako kirolaria da".

Eta nazioartean zer?

Bada, hor ere iaz protagonista izandako hainbat kirolari nabarmendu dituzte aurten ere; esaterako, Simone Biles gimnasta: "Izan ere, estatubatuarrek Rioko Jokoetan izandako agerpenari Munduko Txapelketan lortutako urrezko dominekin eman die jarraipena. Lehenengoz irabazi ditu gimnasta batek bost Munduko Txapelketa, eta 2019ko Munduko Txapelketan bost domina irabazi ditu. Horrekin nahikoa ez, eta Vitali Sherbo ukrainarraren marka ondu du; guztira, 25 domina eskuratu ditu Munduko Txapel-

ketan. Hala, emaitza horiekin Bales erreferente bilakatu da estatubatuarrendako, baina baita afroamerikarrendako ere", dio Mungiak.

Agirrek eta Gallastegi ere Bales azpimarratu dute, baina ezin da nazioarteko errepaso hau amaitu 2019an antolatu duten kirol ikuskizun handienean protagonista izan den Eliud Kipchoge aipatu barik: "Batzuek diote zapatila horiekin korrika egitea dopin teknologikoa dela, erbien laguntza izan duela, ez dela lasterketa ofiziala izan... Esan dezatela gura dutena, baina Kipchogek erakutsi du gizakia kapaz dela maratoian bi ordutik jais-teko, eta korrika apur bat egin duenak badaki zer den kilometroa 2.50era egitea -1.59.40 egin zuen hark-".

Kenyaokoarekin batera beste izen propio batzuk ere azaleratu dituzte, bakoitzaren kirol meritu-a bestearen gainean jartzea ez da eta batere erraza: "Lewis Hamilton 1 Formularen, Mark Markerek MotoGPe egin duena, Van der Poel, Evenepoel eta Egan Bernal ziklistak...". Ez lukete inoiz amaituko.

RAFA MUNGIA:
"SIMONE BALES
ERREFERENTE DA
EMAKUMEZKO
ASKORENDAKO"



TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• **BERGARA** •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK



Seaska ikastolen alde otsailean egin zuten jaialdian, Berri Txarrak taldearen emanaldia.

Arrakastaz, nazioartekoen aho eta begietan

Agur eta ongietorri entzutetsuak izan dira musika arloan; euskal zinemagintzak konplexuak hautsi ditu ekoizpen berritzaileekin eta sariak lortuta; idazle berriak agertu dira eta aitortza jaso dute eskarmentua dutenek / **Aitziber Aranburuzabala**

Berri Txarrak taldeak orain dela urtebete iragarri zuen 2019an erretiratzekoak zirela. Agur esan aurretik, baina, ezaugarri eta tamaina askotariko hamaika kontzertu egin dituzte. "Urte luzea izan da Lekunberrikoentzako eta euren milaka zaleentzako; Iruñeko Nafarroa Arenako bi gau erraldoiez gain, Kobetamendin eta euskal diasporako toki askotan egin dituzte emanaldi gogoangarri eta hunkigarriak", azaldu du Iker Barandiaran musika adituak.

Garai bateko kantuak zuzenean Sorpresa izan da, berriz, 80ko hamarkadako musikariak orduko kantuak abesten zuzenean berriz entzutea. Evaristo Paramosek gidatzen duen La Polla taldeak BECeko aretoa lepo bete zuen, bi egunetan, 34.000 zale batuta; Espainiako kontzertue-

tan ere sarrerak agortu dituzte, eta hastear duten Hego Ameriketako biran ere bide beretik doaz. "La Polla taldearen itzuler eta horiekin batera El Drogas-ek egindako Barricada taldearen gogorapena hunkigarriak izan dira. Eta baita Hertzainak izan zena omenduz Garik eta Josu Zabalak prestatutakoa ere. Talde horiek miresten dutenek errepikatu egin nahi izan dute aspaldi bizi izandakoa, eta gaztegoek hainbatetan entzundako esperientzia azalean bizi. Gauza antzerakoa gertatu zen, baina modu apalago eta familiarrean, irailaren 5ean hil zen Iñigo Muguruza zena omentzeko egindako jaialdi piratan, eta geroago Bilboko Kafe Antzokian egin zutenekoan. Atzera begira bizi gara hala-beharrez edo. Itzela izan da izan duten harrera. Nazioartera begiratuta, aipatzekoak dira Faith No More, Rage Against The Machine eta The Who-ren itzulerak ere", dio Barandiaranek.

Estilo nahasketa eskualdean

Eskualdera etorrita, disko asko atera dituzte aurten: Ruper Ordorikak hogeita bat ditu dagoneko; urteetako ibilbidea duten Iker Martinezek eta Serge-k bakarkako lan berria, Arkada Social-ek zazpigarrena...

Bergarako Brigade Loco taldeak aurten goia jo duela dio Barandiaranek: "Oraindik ere indarra du punk-oi! estiloak, eta, horren erakusle, talde gaztearen arrakasta. Hala ere, izan dira beste hainbat bitxikeria ere, adibidez, Arrasateko Assata taldea. Shot estudioan grabatu dute, eta poztekoa da; izan ere, urtea estudioaren aldeko IShotU elkartasun jaialdiarekin hasi genuen eta urtean bertan zabaldu ditu berriz ere ateak".



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

Lan aholkularitza

Kontabilitatea

Zerga aitorpena

Zorionak eta
Urte berri on!

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Berri Txarrak

25 urteko ibilbidea eginda, Lekunberrikoek agur esan dute; hamaika kontzertu gogoangarri eskaini dituzte.

'La trinchera infinita'

Sariak, kritika onak eta publikoaren harrera ona jasota, 15 izendapen ditu filmak Goya sarietarako.

Bernardo Atxaga

Espainiako Letren Sari Nazionala jaso du euskal idazle esanguratsuak.

Garai bateko taldeak

La Polla eta Hertzainak taldekoak taularen gainera igo dira, orduko kantuak zuzenean abesteko berriz.

Beñat Gaztelumendi

Añorgako bertsolariak bigarren jantzi du Gipuzkoako txapela.

Goikobalu eta Ganbara

30. urteurrena ospatu du Arrasateko helduen koruak eta 25.a haurrenak; beste horrenbeste Oñatikoak.

Andueza eta Barberena

Euskarazko eleberrri bana eta Anduezak gaztelarazko beste bat idatzi dituzte.

Chirlaque eta Txurruka

Bergarako Musika Bandan zuzendariaren lekuko aldaketa izan da aurtan.

Debagoiengan beste esparru batera begiratuta, Arrasateko Goikobalu eta Oñatiko Ganbara abesbatzek 30 eta 25 urte bete dituzte. Eta Bergaran gogoratzeak da Musika Bandan izan den aldaketa: 32 urtean zuzendari izan den Alfredo Gonzalez Chirlaquek Enrike Txurrukari eman dio lekukoa.

Euskal zineak, "konplexurik ez"

La trinchera infinita Donostia Zinemalditik indartuta ateraz, sei sari eskuratuta; horien artean, Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra, Gidoi Onenaren saria eta euskal ekoizpenen Irizar saria. Urriaren 31n estreinatu zuten aretoetan, eta dagoeneko 200.000 ikusletik gora izan ditu; eta goxo bukatuko dute urtea, Goya sarietarako hamabost izendapen jasota.

"Ikusi ditudan filmen artean onenen zerrendan dago", dio Aitor Abaroa zine adituak, eta zera gaineratu du: "Moriartikoeak proiektu honekin konfirmatzen digute euskal ekoiztetxe, zinegile eta zineko profesionalek badutela talentua eta gaitasuna industria indartsuekin lehiatzeko". Imanol Gallego zine-kazetariak ere Moriartikoen ibilbide oparoan beste pauso bat dela dio: "Itzela da, baina *Handia*-k lortutako hamarrak berdintzea ezinezkoa dela uste dut, *Mientras dure la guerra* eta *Dolor y gloria* oso indartsu baitaude".

Zinemazale biak bat datoz: "Euskal zinemagintzak konplexuak apurtu ditu". Eta biek goraipatu dituzte Galder Gaztelu-Urrutia bilbotarraren *El hoyo* eta Aritz Moreno donostiarraren *Ventajas de viajar en tren*. "Genero eta ekoizpen berriak lantzen hasi dira hemen, eta argi dago talentua sobera dagoela", dio



Beñat Gaztelumendi, aitarekin; txapela jantzi zion hark.

BERRI TXARRAK TALDEA ERRETIRATU EGIN DA, 25 URTEKO IBILBIDE OPARO ETA EREDUGARRIA EGINDA

GARAI BATEKO ROCK TALDEEN ITZULEREK BELAUNALDI AK BATU DITUZTE, ARRAKASTAZ, ARETOAK BETETA

MORIARTIKOEZ GAIN, EUSKAL ZINEGILE GEHIAGOK JASO DUTE NAZIOARTEAN AITORTZA ETA SARIA


ARRASATEKO GOIKOBALU ETA OÑATIKO GANBARA ABESBATZAK, 30 ETA 25 URTE KANTUAN

Gallegok; eta zera Abaroak: "Gaztelu-Urrutiak eta Morenok Goya sarietako zuzendari berri onenaren izendapena jaso dute. Bestetik, Alice Waddington bilbotarraren *Paradise Hill* ere aipatuko nuke; ez da hain laudatua izan, baina aktore oso ezagunak izan ditu bere esanetara, eta Netflix-entzat *Scarlet* filma egiteko eskaintza jaso du orain".

Iban Del Campo arrasatearra ere goraipatu dute. "Jarraitu beharrekoa da; orain arte, bigarren lerroan egon da. Bere unibertsoa gainontzeko euskal zinemagileengandik urrun dago. Ziur nago *Glittering Misfits* lanak hegoak emango dizkiola", dio Gallegok. "Poztekoa da benetan Del Campo bezalako egileek euren lanak aurrera ateratzea. Film laburren, esperimentalen eta dokumentalen alorrean hutsune handia dugu; ez dago publiko zabalago batengana eramateko aukera handirik".

Euskal zinema eta websailak

Euskarazko zinegintzarentzako albiste ona *Agur, Etxebeste!* filmak dakarrela dio Abaroak: "Hollywooden oso ohikoak diren bigarren parteek industriaren datu garrantzitsuak erakusten dituzte; hau da, ekoiztetxe batek bigarren egitea erabakitzen duenean, gehienetan adierazten digu argi samar ikusten dutela irabaziak izan ahal dituela. Publiko fidela duen adierazle da hori. Bestetik, telesailen loraldi edo masifikazio aro honetan, websailen fenomeno euskarara iritsi izana oso albiste pozgarria da. Gutxienez, hiru proiektu oso interesgarri plazaratu dira: *Ixa* (Gaztezulo-Goiena); Maddi Castrok zuzendu duen *Pikuak*; eta Uemarentzako Hiru Damatxo



idea faktoriak egin duen *Kartzela*". Koldo Serrak azken telesaila telefonoekin grabatu dela aipatu du Gallegok: "Argi dago hizkuntza eta aurrekontua baino gehiago talentua dela artearen muga bakarra".

Idatzitakoengatik, aitortza

Idazle veteranoek sariak jaso dituzte: Bernardo Atxagak, Espainiako Letren Sari Nazionala; Xabier Amurizak, Manuel Lekuona saria; eta Abbadia, Arantxa Urretabizkaia. "Euskal letratan kontsokratuena den Atxagari hemendik kanpo leku hori berretsiko dio. Baina, sariez gain, uste dut gauza interesgarriak ari direla gertatzen; ekimen bat aipatuta, Azpeitiko Dinamoa Sormen Guneak abiatu duen Hitzaren Eskola", dio *Berria*-ko Itziar Ugarte kazetariak.

Liburu berri asko izan dira aurten. "Adibidez, poesian, Iñigo Astizen *Analfabetoa* eta Jon Gerediagaren *Urtaroak eta zeinua*; narratiban, Irati Elorrietaren *Neguko argiak*, Atxagaren *Etxeak eta hilobiak*, Karmele Jaioren *Aitaren etxea* eta Unai Elorriagaren *Iturria*", dio Ugartek.



La trinchera infinita filmeko lantaldea aurtengo Donostia Zinemaldian.

Debagoiengan ere, bereziki eleberrietan, uzta ona izan da. Besteak beste, John Anduezak *El último fotograma* eta *Magali ez dago bakarrik* idatzi ditu eta Eneko Barberenak *Afrikanerrak*, lehenengoa genero horretan.

Gipuzkoako Bertso Txapelketa
Beñat Gaztelumendik irabazi zuen Donostia Arenan jokatu zuten finala, eta aitak jarri zion txapela. "Parte hartzaileen kopurua eta maila azpimarratuko nituzke, eta, bereziki, emaku-

meena. Txapelketa ez da parekidea izan, baina lau emakume finalean, eta eskualdeko ordezkariak ere hiru emakume", dio Jon Altuna kazetari bergararrak.

Txapelketa nagusiez harago, herrietan egiten dituzten bertso-

ekimenak goraipatu ditu Bergarakoak: "Nire herrian, aurten 15 bertsozari hartu dugu parte herriko txapelketan. Giro bikaina egon da kanporaketetan, eta ederra izango da gaur [hilak 27] jokatu dugun finala".

Erakusteko zailtasunak

Antzerkian ekimen asko sortu dira ibarrean; adibidez, Oñatiko *Bridges*, Nazioarteko Antzerki Topaketa, Bergarako Jardun euskara elkartetik jaiotako Kokoa taldea eta Oñatiko Irazan-ekoen Xup! kimu berria.

Mireia Gabilondo aktoreak urte lanpetua izan du: "Oso lan ezberdinak egin ditut, eta pozik nago, baina oso gogorra da bizirik irauteko proiektu askorekin ibili beharra. Denbora gutxi egiten dute obrek aretoetan eta horrek etengabe estreinaldiak eskaintzera bultzatzen gaitu, hori da eta programatzaile gehienek eskaera". Hain justu, Gabilondok zuzendutako iazko *Er-launtza* eta Ander Lipusen taldearen *Zaldi Urdina* goraipatu ditu Altunak: "Ederrak dira, ahalegin handia egin dute; euskarazko superproduzioak dira".

Bergara •
metagra
México •
Group

**Gabon zoriontsuak eta
urte berri on!**



VEÑE HERRERO
AKTOREA **ARRASATE**



Juan Mayorga antzerkigileak RAEko *M* aulkia hartu du, eta hori ospatzekoa da antzerki arloan. Belaunaldi aldaketa irudikatzen du horrek.



Indarkeria matxista kasu asko daude oraindik, borroka feminista handitzen doan arren. Hala ere, gobernuek ez dituzte aintzat hartzen.



IÑAKI URIBEEtxEBERRIA
AKE-KO KIDEA **ARRASATE**



Ez dut esperantza galtzen aurrera begira pertsonen kanpoko itxura zaindu beharrean barrukoa gehiago zainduko dutela.



Munduan daukagun hipokrisia izugarria da. Gauza handietan pentsatzen ari gara eta ez gara kapaz sinpleenak egiteko.



EIDER MURGOITIO
HERRITARRA **ARRASATE**



Elikadura subiranotasunaren hazkundera. Kontzientzia gero eta handiagoa da, eta lehen sektorea zaintzera eramango gaitu, ingurumena zainduz.



Giza eskubideen urraketa, errefuxiatuak, harresiak, ultraeskuina, xenofobia, klima larrialdia, biolentzia, Altsasukoen sententzia...



ISABEL OLIVENZA
BASOTXO ERRETIRATUEN ELKARTEKO KIDEA
ARETXABALETA



Kontu berri asko jarri dira abian Basotxon eta harrera beroa izan dute. Proiektu berriak datoz, lekualdatzea tarteko; hortaz, aurrera goaz.



Klima larrialdia kezkarria da benetan; erabaki potoloak hartu beharrean gaude. Larria da baita indarkeria matxistak ematen dituen berriak.



MIKEL ARROIABERE
WIKILARIA **ARETXABALETA**



Euskararen presentzia teknologia berrietan; *Egunean behin* aplikazioa, Wikipedia eta Txikipedia proiektuak, testu itzultzaile berriak...



Euskararen presentzia eskasa sare sozial nagusienetan eta euskal komunikabide ugariaren webguneetan.



AHINARA ZUBIZARRETA
HERRITARRA **ESKORITATZA**



Zainketa aringarriak bailaran. Eskertzekoa da langileek emandako zaintza eta laguntza heriotzaren bidean murgiltzen diren familiei.



Epaia judizial tamalgarriak, tragikoak, izan ditugu. Botere politiko eta falokratakotik independentzia bakoak izan direnak.




JUANITO URIARTE
HERRITARRA **ESKORITATZA**



CO2 emisioak murrizteko kontzientzia handiagoa nabarmenduko nuke. Honen protagonistetako bat Greta Thunberg gaztea izan da.



Albiste kezkarriak jaso ditugu klimaren eta naturaren hondatzearen inguruan. Klima aldaketaren ondorioak azkartzen ari dira.



ASIER URIZAR
HERRITARRA **LEINTZ GATZAGA**



Denbora eta lan askoren ostean, Leintz Gatzagan udal taldea osatu izana nabarmenduko nuke. Pozteko albiste, duda barik.



Azken hilabeteetan Katalunian bizi duten egoera kezkarria izan da, eta oraindik ere konpontzeko asko geratzen dela uste dut.



MIGEL LOITI
ALAIK-EKO PRESIDENTEA **ARAMAIO**



Nahikoa bare eta ezusteko handirik gabe joan da urtea enplegu arloan, eta krisiak izoztutakoak joan dira urtzen. Lanarekin dator ongizatea.



Hego Amerika, arabiarrekiko ezinikusia, kurduak, *brexit*-a, klima aldaketa... Agintarien maila negargarria. Jendearen arazoak ez dituzte lehenetsun.



IDOIA ASURMENDI
MUSIKARIA **ARAMAIO**



Kataluniak erakutsitako herri indarra, gaur egun munduan azaleratzen ari diren injustiziei erantzuteko erreferente gisa.



Oraindik guztiongan feminismoa ez dagoela ikusirik, horren inguruan hitz egiteko eta borrokatzeko beharra egotea.



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

**Gabon zorientsuak
bergarar guztioi!**

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84



IBON LEIBAR 'TXINBO'
KOPLA BARIK BERTSO ESKOLA **BERGARA**



Euskal Herria eta Katalunia independentziaren bila lanean ari garela; garrantzitsua da bidea egiten jarraitzea, helduko da-eta gure aukera.



Eurokopa Espainiak Bilbon jokatzea: propaganda, espainolismoari gorazarrea, faxisten probokazioa, negozio zikinak aberatsen partetik...



EDURNE GALLASTEGI
MERKATARIA **BERGARA**



Oso garrantzitsua izan da Zubikua dendak *10 bitxiak* izendapena jaso izana, indarra eta ilusioa ematen dizkigu aurrera egiteko.



Herriari bizitza handia ematen dion komertzio txikiaren egoera oso zaila da, denda asko ari dira ixten; bereziki, Interneten mehatxuagatik.



JULEN ARANBURU
PILOTA SAILEKO ENTRENATZAILEA **BERGARA**



Emakumeen kirola indar handia ari da hartzen. Horren adibide da Bergara Hiria II. Pilota Txapelketa ikustera frontoira etorri den jendetza.



Eraso matxistak murriztu beharrean, erasoak areagotzen ari diren gizarte batean bizi gara. Etorbizuna beltz ikusten dut arlo horretan.



NORA LEGORBURU
PAUSOKAKO GURASOA **ANTZUOLA**



Eskola pedagogia bermatzeko legez besteko proposamena onartzea lortu da herritarren mobilizazioari eta atxikimenduari esker.



Legebiltzarrean proposamena aho batez onartu arren, oraindik ez da ezer egin eta iazko egoera berean gaude. Ez dakigu oztopoa zein den.



JESU MARI MATA
INFORMATIKARIA **ANTZUOLA**



Feminismoa aurrera doa ausardiarekin, indarrez eta irmotasunez. Antzuolan, Andramanuelak taldea dugu dena aurrera ateratzen.



Bailaran ez dago benetako alternatiba den bidegorri sarerik. 2020an oraindik autoek lehentasuna izaten jarraituko dute.



EDURNE SAEZ
HOTZ OÑATI **OÑATI**



Poza ematen dit herritarrek gure elkarteari ematen dioten babes eta laguntza handia. Horixe nabarmendu gurako nuke.



Kontrako aldean, berriz, errefuxiatuek bizi duten egoera gero eta okerragoa da. Egoera konpondu beharrean, okertzen ari da.



JOSE ANTONIO URTEAGA
HERMANOLOA **OÑATI**



Nire ustez, urteko onena izan da herriak egin dien harrera Larrañako zentrora herri ezberdinetatik etorri diren errefuxiatuei.



Munduko agintariak behar bezala ez jokatzeak pena ematen dit: tranpak egitea edo interes ekonomikoaren alde egitea.



ELENA IBARRONDO
GURUTZE GORRIA **OÑATI**



Gurutze Gorriak Bergaran jarri duen Eskola Arrakasta proiektuak erantzun ona izan du. Esperientzia polita izan da guretako eta herritarrendako.



Dugun generoa edo jatorria izanda ere, pertsonak pertsonak gara eta horrela tratatu behar dugu elkar. Ez dugu enpatiarik.



PAULA PALACIOS
IKASLEA **ELGETA**



Emakumeen aurkako biolentziaren aurka Txileko feministek sortutako kantua eta nazioartean izan duen jarraipena. Hori da bidea.



Elorrioko eta Debako 64 ikasle Saharako kanpamentuetara joan barik gelditu dira atentatu baten abisuagatik. Saharak libre izan behar du!



JOSE ANTONIO OJANGUREN
ERRETIRATUA **ELGETA**



Mendian zaborra jasotzen ikusten ditut hainbat herritar. Poltsa bete zikinkeria itzultzen dira osteratxotik askotan. Bejondeiela!



Kezkatzekoa da mendietan dagoen zaborra. Basoko lanek zikinkeria eta kalte asko eragiten dituzte, eta ez du inork kontrolatzen.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



RPS: 275/18



Arantzazuko Ama 19 A - OÑATI
Tel.: 943 53 36 37
Ordutegia: 09:00etatik 13:30era
15:30etik 21:00era
podourratsoinati@gmail.com



GIZARTEA 2020

Aurreikuspenik gabeko iragarpenak



JUANJO SAN MIGUEL (EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA)

Esan ohi da iragana atzeraezina dela, etorkizuna iritsi gabea eta oraina, etengabeko mugimenduan, bien artean galtzen dela. Aurrera begira etor dakigukeena asmatzea zaila da, baina garai aldakor hauetan ahalegin antzua bihurtzen da gehienetan.

Ingurumenari eta klima aldaketari lotutako gaiek lehentasuna dute, baina, zoritxarrez, akordioak lortzeko ezintasuna egiaztatzen. 1992an Rio de Janeiro klima aldaketari buruzko lehen batzarra egin zutenetik urteak pasa dira, baina ingurumena, natura, inoiz ikusi gabeko abiadan hondatu da urteotan, eta, itxuraz, abiada bertsuan eutsiko dio joera horri. Hala ere, munduko agintari gorenak ez dira gai oinarritzko akordioak lortzeko, eta sinatzen dituztenean ez dituzte betetzen edo, zuzenean, hitzartutakoa hautsi egiten dute. Aditu zenbaitek dio urtetan desegin dugunak ez duela konponketarik, berandu gabiltzala.

Hauteskundeak AEBetan

Eskoziako Glasgown dugu hurrengo hitzordua, baina, hori baino lehenago, Ameriketako



Estatu Batuetan (AEB) munduko hauteskunde garrantzitsuenak izango dituzte, bertan erabakitakoak hango mugetatik kanpo zuzeneko eragina duelako. Horren adierazle, Donald Trump, historian zehar AEBek izan duten presidente harrigarriena: migrazioa izan zuen kanpainan hizpide nagusi; gero, hitzetan desegin zaio agindutako gehiena, baina egia da aukeratu zutenetik AEBetako gizartean zatiketa areagotu egin dela, eta etorkinekiko jarrera gogortu, Amerika handi horrek amerikarrentzat bakarrik izan behar duela uste baitu; estatubatuarrentzat.

Baina auzi honetan europarrok ez dugu harrotasunik erakutsi edo inori aholkuak emateko inongo arrazoirik. Mediterranea kanposantu handia bilakatzen ari zaigu eta Europar Batasunak ezin izan du orain arte zentzuzko biderik ireki iraganean, gaur egun eta etorkizunean buruhaustea izango den arazo honi aurre egiteko. Migrazioa, etorkinen joan-etorriak eta errefuxiatuen babes falta arazo izango dira hastear den urtean, ez du konponbiderik eta European derri gorrez erantzun bateratua aurkitu beharko dugu, etorkinak behar ditugulako eta erantzunik ezak gizarteak zatitu eta eskuin muturraren garaipena ekarriko duelako.

Lan baldintza eskasak

Arazo hauek lehen mailakoak dira etorkizuna ziurtatu eta oraina antolatzeke, baina, gaur egun, jende askoren kezka beste modu batekoa da, ekonomia arauak ingurumena bezain azkar desitxuratu direlako. Lan baldintzak gero eta eskasagoak dira, kontratuak motzegiak gure bizimodua era egokian antola-

tzeko, soldatak urriak, eta ekoizpen sistemak berehalako etekin du helburu nagusi. Enpresen eta lantegien izaera bera aldatu egin da, gai egokiak ekoiztu eta irabaziak izatea ez da nahiko. Finantza ekonomian akziodunak dira jaun eta jabe, mozkinak agindutakoa baino txikiagoak badira enpresa itxi edo lekuz alda lezakete...

Hastear den urteak kontu berri ugari ekarriko du, baina gizakiok ditugun sakoneko arazoak betikoak izango dira, gure jarduerak eragindakoak. Luze bizitzeko ametsak amesgaizto bilakatu zaizkigu; gero eta gehiago bizi gara, baina horrek sortzen dizkigun zailtasunak urtetik urtera handitzen ari dira. Garatu dugun sistema ekonomikoak berezkoa du kontraesana, ekoiztu, erosi eta kontsumitzen ez badugu, gurpil finkoko bizikleten gisa geratu eta erori egingo delako.

'Brexit'-a, Afrika ahaztuta...

2020n munduko mapan *brexit*-a azalduko zaigu, herrialde arabiarretako ezinegona, Hego Amerikako herriarren etsipen amorratua. Afrika ahaztutako kontinentea izango da, eta, Asia mapa horietan kokatzen kostatzen bazaigu ere, aitortu beharko dugu Europa ez dela munduko ardatza, Atlantikoan gertatzen zirenak orain Itsaso Barean jazotzen direla, eta gu konturatu orduko txinatarrek adieraziko digutela zer den zuzena eta zer okerra, zein den bide egokia eta zein debekatutakoa. Hau guztiau ez da datozen hamabi hilabetetan gertatuko, baina gizateria jorratzen hasitako bide gehienek horrantz garamatzate, eta, konturatu orduko, betirako iruditutako errealitateaz etsipenez oroitu gara.

ETXAGI • IRISH PUB GALWAYS • POL POL

Urte berri on!

EKONOMIA 2020

Beste finantza-leherketa bat gertatuko ote den...



ADRIAN ZELAIA (EKAI CENTER-EKO ZUZENDARIA)

Ekonomia ez da zientzia fisikoa; iragarpenek zuhurrak izan behar dute, batez ere kontuan hartuta erabaki politikoez zuzenean eragin dezaketela gertakariak atzeratzea edo aurreratzea.

Hala ere, Mendebaldean beste finantza-leherketa bat gertatzeko arriskuaz hitz egiten den lehen aldia ez bada ere, hainbat faktorek bat egiten dute 2020an gerta daitekeela pentsarazteko.

Finantza-sistema, larri

Ekonomia errealek –batez ere, inbertsio produktiboa– ez du gora egiten Europan; faktore horrek areagotu egin ditu finantza-sistemaren egiturazko desorekak, Mendebaldeak konpontzen jakin ez duena eta muga-puntu batera iristen ari dena: metatutako gehiegizko zorpetzea; finantza-sektorean pilatutako arriskua; Ipar Amerikako ekonomiaren benetako pisuaren eta dolarren erabilera munduko erreserbako lehen moneta gisa hedatzearen arteko desoreka larria.

Finantza-sektorean metatutako arriskuak sistematikoki ezkutu dira, moneta-hedapeneko politiken kontura egindako eten-

gabeko erreskatearen bidez. Politika horiek, 2012tik aurrera, aurrekontu publikoen kargura egindako erreskateak ordezkatu zituzten. Badirudi, gobernuen erreskate-ahalmena 2008-2012 aldian agortu zen bezala, moneta-erreskatea ere 2012tik igarotako 7 urteetan agortu dela. JP Morgan eta Deutsche Bank erakunde espezifikoek egoera oso larriari buruzko zurrumurruak gero eta handiagoak dira; oso litekeena da horrek finantza arloko eztanda beldurgarria sortzea.

Faktore politikoak, funtsezko

Badirudi dolarrak nazioarteko merkataritzan duen pisu galera gero eta handiagoa puntu kritiko batera iristen ari dela, eta nazioartea behartuko duela urteak prestatzen daramatzaten sistema alternatiboetako bat premiaz martxan jartzera. Onerako edo txarrerako, sistema fiduziariora zalantzan jartzea saihestezin bihurtuko da, eta urtean edo mota bateko edo besteko benetako balioetan oinarritutako txanponak gero eta pisu handiagoa duten testuingurua espero dugu.

Nazioarteko finantza-sistemaren aurreikusitako krisi horren barruan, faktore politikoak funtsezkoak izango dira krisi hori 2020an gerta dadin edo ez. Alde batetik, Ameriketako Estatu Batuetako krisi politiko larria bihurtutze historiko bihurtzen ari da datorren urteko presidentzarako hauteskundeak; indar

ekonomiko batzuek hauteskundeak baino lehen finantza-leherketa eragiteko apustua egiten dute eta beste batzuek, berriz, behar adina atzeratu nahi dute, hauteskundeetan aurreikus daitekeen eragina saihesteko.

Pasibotasun harrigarria

Txinaren eta herrialde emergenteen zeregin ekonomiko eta politikoa funtsezkoa izango da moneta hegemoniko gisa dolarren aurreikusitako krisia noiz eta nola gauzatuko den erabakitzeko. Nazioarteko komunitate osoak aktiboki inplikatu beharko du beharrezko adostasun politikoan, diru-sistema berrirako igarobidea ahalik eta eraginkorrena izan dadin ziurtatzeko. Eta traumatikoa ez dela ziurtatzeko.

Halaber, azpimarragarria da ekonomia produktiboa suspertzeko eta Europan bultzada teknologikoa emateko ekimen politikorik eza. Pasibotasun harrigarria, 2020rako Europako na-

zioarteko posizioen galeraren eta inbertsio-bultzada ahularen jarraipena iragartzen duena. Finantza-leherketa berri bat finantza-berregituraketa baterako aukera izan liteke, zorpetzea nabarmen murriztuko lukeena eta inbertsioa berraktibatuko lukeena, azpiegiturretan inbertitzeko asmo handiko programa batekin batera etorri beharko lukeena, Europako herrialde askotan hain beharrezkoa dena. Txinak bultzatutako Zetaren Bide Berria komunikazio eta garraio azpiegituren proiektuan Europako lankidetzak aktiboa aukera historikoa litzateke. Tamalez, etengabeko gainbehera ekonomikora eramanez gaituzten talde ekonomiko berberak bote-re politikoan mantentzeak ez du egiturazko aldaketa nabarmenik aurreikusten. Zaila da Europako ekonomiak hobera egitea sakoneko aldaketa politikorik gertatzen ez bada. Alemaniak eta Frantziak dute hitza.



**DOLARRAK
MERKATARITZAN
DUEN PISU GALERA
PUNTU KRITIKORA
IRISTEN ARI DA**

ILE ADAPAINDEGIA

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

[f](#) ilea peluqueria/ileapaindegia

Gabon jai zorientsuak guztiei!

KIROLA 2020

Txikitik handira, eta ametsetatik errealitatera



ARATZ LOSADA (OÑATI IRRATIKO KIROL ESATARIA)

Dagoeneko azkenetan dabil 2019. urtea. Izan ere, konturatu ere egin gabe, gizaldi berriko bigarren hamarkada estreinatuko dugu laster batean, eta, kirol zale garenontzat, 2020ak opari berezi bat dakarkigu: Olinpiar Jokoen beste ekitaldi bat. Pekinen izango dira, eta, diotenez, inoizko Olinpiar Joko berritzaileenak izango dira. Ea, bada, noraino harritzen gaituzten txinatarrek.

Edozelan ere, teknologiaren baliabide mugagabeak alde ba-

tera utzita, festa ikusgarri honek daukan beste bertute bat nabarmendu nahiko nuke: hain zuzen ere, oso oihartzun mediatiko txikia duten kirolak unibertsoaren erdigunean kokatzen dituzte Olinpiar Jokoei. Horrenbestez, lau urtean behin bada ere, handien pare jarritz eta orokorrean ez daukaten erakusleioa eskaintzen diete. Futbolaz, saskibaloiaz eta txirrindularitzaz haratago, kirol benetan interesgarriak ikusteko aukera bikaina izango dugu.



Eurokopa, Bilbon ere bai

Futbolzaleek berriz, ohiko jardunaz gainera, Eurokopa ere izango dute. Herrialde ezberdinetan jokatu da aurreneko eta formatu berritzaile honek Euskal Herriari mundu zabalean proiektatzeko aukera eskainiko dio, Bilbo eta San Mames hainbat selekzio eta zaleren egoitza izango baitira udaberri amaieran.

Hala, tamainaz txikiak izan arren, ekitaldi handiak hartzeko gai garela erakutsiko dugu, beste behin.

Horretaz gain, Debagoiengan bertan ere badaukagu era horretako adibiderik. Izan ere, baliabide gutxiarekin, baina herriaren babesarekin, Antxintxika triatloi taldeak sekulako aurrerapausoa emango du urte berriarekin batera.

Kirolaren alderdi integratzaile indartu nahian, sail egokitua sortu du talde horrek, eta, besteak beste, kirolari eredu garri den Joseba Azkarate oñatiarrari, bizitzako erronka garrantzitsuei gainditzeko baliabideak eta laguntza eskainiko dizkio. Bejondeizuela!

Agur Zubikoa kiroldegiari

Eta, txantxikuarra izanik, ezinbestean, gure kiroldegi maiteari buruz hitz eginez amaitu nahiko nuke.

Hiru hamarkada luzeko historia utziko du atzean Zubikoa zaharrak, eta, datorren urtea erabiltzaileontzat zaila izango den arren, etorkizuna hobea izango da.

Txiki eta zaharkituta zegoen eraikinari berritzeko unea iritsi zaio, berak ere handien pare egon nahi du eta!

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLOKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Mabilategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usatxa plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

*Zorionak eta
urte berri on!*

Inagaria jami nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

KULTURA 2020

Eskaintza zabala, baina publiko beharra ere bai



MIKEL LIZARRALDE ('BERRIA'-KO KAZETARIA)

Hastear den urteari begira jartzeko, zer hobeto bukatzeaz denari begiratzea baino? Ekitaldiak, gertaerak, kultur albisteak, eta abar ez dira bere horretan errepikatuko 2020an, baina, beharbada, 2019ko ispiluan islatuta begiratzen baditugu, ondorio batzuk atera ahal izango ditugu.

Horretarako, ariketa bat egitea besterik ez dago. Zein izan da Euskal Herrian albiste sonatue-na kulturari dagokionez aurten? Zein izan da komunikabideen arreta ez ezik, zaleena ere piztu

duen gertakaria? Zalantza gutxi izango da Berri Txarrak-en agurrak markatu duela kultur agenda. Orain dela urtebete iragarri zuten agurra, eta urte osoa izan dugu despeditzeko. Edo, hobeto esanda, urte osoan despeditu dugu taldea. Milaka eta milaka lagunek. (Kultur) Bizitza horretara mugatuko balitz bezala.

Kultur jarduera, bazterreko lana
Posible litzateke 2020an halako fenomenorik gertatzea? Artista batek agur esatea eta milaka

lagunek erantzutea? Zaila, ezinezkoa ez esateagatik. Sortzaileek segituko dute lanak sortzen, erakusten, aurkezten, baina harri garria litzateke haietako batek berak ere sorraraztea Berri Txarrak-ek piztu duen harrabotsaren laurdena ere.

Bestelakoa, oso ezberdina, delako haien egoera, sortzaileei beraiei kasu eginez gero. Eta egoera asko aldatzen ez bada, ezberdina izaten segituko delako 2020an ere. Gehien-gehienentzat kultur jarduerak jarrai-

tuko du izaten bazterreko lana; ez nagusia. Gustuz, gogoz eta mimoz egiten dena, baina bizi-tzeko –hau da, hipoteka ordaintzeko edo mahaira jatekoa eramateko– biderik ematen ez duena. Eta kulturaz bizi diren gehientsuenek ere nekez egingo diote ihes prekarietateari.

Gurpila ez da gelditzen

Bai, kulturak segituko du bere martxa. Ekitaldi ugari izango dira han eta hemen. Joango gara horietara –askoz gehiago *ebento*

handietara–, izango dira diskoak, liburuak, antzezlanak, arte erakusketak, bertso saioak... Gurpila ez delako gelditzen, eta, zorionez, eskaintza gero eta askotarikoagoa delako.

Ikusteko izango da, ordea, gaur-gaurko eskaintza zabal horrek bere publikoa bilatzen eta aurkitzen duen, eta, igarotako garaiei nostalgia ariketek egiten duten bezala, ikusle-entzule-irakurleen arreta pizten duten. Kultur sistema (nahiko) osasuntsu baten sintoma litzateke.



IKUSLEEN, ENTZULEEN
ETA IRAKURLEEN
ARRETA PIZTEA XEDE

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona

Urte berri on!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaille Ofiziala



URE BEZEROAK:



35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

Urte berri on!

www.etxe-lan.com

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)